Gari Espaloian
‘0-tik’ diskoa aurkeztu zuen
KULTURA, 25

Derbia Bergararentzat: Bergara 4 - Oñati 2
UDAk eta Aloñak gol batengatik galdu zuten etxetik kanpo
KIROLA, 14

Edorta Arana
Liburua argitaratu berri du
GEUREAN, 7

ASTELEHENEKO
Goienkaria

ASTELEHENA • 2005ko urtarrilaren 24a • 1. urtea • 42. zenbakia • 0,90 euro

Urteko txakolin berria dastatzera jende asko gerturatu zen Partaittira

San Bixente eguneko jaian aurkeztu zuten jendaurrean Kataide txakolin berria

200 LAGUN
San Bixente egun ostekoan egin zuten jaia Angiozarko Partaittin. 200 lagun inguruk ospatu zuen

KATAIDE TXAKOLINA
Urtero aurkezten du Arrasateko Hegiandi baserriko ugazabak Kataide txakolina. Aurtengoa, gozoa eta kolore ederrekoa

HAMAIKETAKO BIKAINA
Hamar kilo txorizo, salda eta lau kilo okela jan ziren domekan egindako jaian

San Bixenteren omenezko jaian Debagoieneko txakolina ezagutzeko aukera izan zuten Angiozarko (Bergara) Partaitti auzora hurbildu zirenak. 200 bat lagunek bete zuten hara batzeko ohiturarekin. Kataide txakolina gozoa dagoela esan ziguten galdetutakoek. Giroa aparta izan zen. 5

AITOR LIZARRALDE

Altzuaran Azpikoa baserrian banatu ziren urteko txakolin berria eta txorizo pintxoak.

Taxilariek tarifak parekatu dituzte

Herri arteko prezioak berberak izango dira ibar osoan

Debagoieneko taxien elkarteak Mankomunitatearen laguntzarekin hitzarmenak aurkeztu ditu udaletan. Asmoa da taxiak soberan dituzten herriek gabezia duten herrien premia asetzea. Horretarako, tarifak parekatuko dituzte dute taxi gidariek otsailean. 2-3

Ibarreko garabiek bat egin dute grebarekin; oraingoz, gurean, eragina ez da nabarmena 8

ELAk Europako Itunaren kontrako kanpaina informatiboa hasiko du astean 8

Eulen SAk eten egin ditu negoziazioak

Oñatiko San Martin egoitzako langileen eta Eulen SA enpresaren arteko negoziazioak eten egin dira. Langileek salatu dute enpresak alde batez hartutako erabakia dela. Horren harira, kaleratutako hiru langileak berriz onartzea exijitu dute. 8

GEUREAN

• Kanuto Deunaren egunean 130 lagun inguru batu ziren, zapatuan, Aretxabaletan | 4
• Bizigune autobusa Arrasaten izan zen egubakoitzean programaren gaineko informazioa ematen | 6

Ehunka sinadura batu ditu EHEk osasun zerbitzuak euskalduntzeko ahaleginean | 6

DEBAGOIENEKO TAXI ZERBITZU BATERATUA

AITOR LIZARRALDE

Gaur egun 36 taxik Dihardute Debagoienean. Bergara da taxi gehien dituen herria; 14, hain zuzen ere.

Erabiltzaileei buruz, taxilariak

• **Taxi gidariek aitortu digutenez, Debagoienean egiten dituzten zerbitzurik gehienak enpresek eskatutakoak izaten dira; batez ere, Arrasateko taxilariek egiten dituztenak.**

• **Bergarako geralekuan esan digutenez, aspaldi honetan autobus zerbitzu gehiago dagoela igarri dute. Antzuola-Bergara ibilbidean nabari izan dute hori, batik bat.**

• **Ibilbide horretan errepidean egin diren aldaketak eragina izan du taximetroan: kilometro gehiago izatera prezioa bikoiztu egin da.**

• **Taxi erabiltzaileek Arrasateko eta Gasteiz-ko ospitaletara joateko eskariak egiten dituzte. Behin-behineko bidaiak izaten dira gehienak.**

TAXILARIAK I OTSAILAREN HASIERAN HASIKO DIRA 24 ORDUKO ZERBITZUAREKIN ETA HERRI BARRUKO TARIFA PAREKATUEKIN

Ibarreko taxi gidariek herri barruko tarifak parekatu dituzte

Debagoieneko taxilariek taxi eskualdea eratu dute. Aurrerantzean Bergaratik edo Eskoriatzatik taxia hartzeak prezio bera izango du.

Marijo Deogracias

Urte batzuk dira Gipuzkoako Foru Aldundiak eskualdekako antolaketa bultzatu zuela, taxi gidariek horrela eskatuta; Debagoienean ere, horrela hasi dira funtzionatzen. Horren ondorioz, 24 orduko zerbitzua izango dugu eta tarifa bera izango dute herri guztietako taxilariek, otsailetik aurrera.

Arrasate, Bergara eta Eskoriatzako taxilariek ia urtebete daramate elkarrekin lanean. Arrasateko taxi geralekuan autorik ez egoteari eta Bergaran taxiak zerbitzu barik egoteari erantzuna emateko asmoz ekin zioten batera jarduteari. Izan ere, batak bestea konpondu du. "Arrasaten orain arte 11 taxi egon dira, baina hango enpresen eskariekin geralekuan ez zen autorik egoten; Bergaran, osterantzean, zerbitzu eskari gutxiago izaten zituzten. Akordioarekin lortu dugu na da Arrasaten taxi lizentzia gehiago barik, zerbitzua ematea Bergara edo Eskoriatzako taxiak erabilita". Horixe esan digu Jose Angel Iborra Debagoieneko taxilarien elkarteko presidenteak. Hark azaldu digunez, "Arrasateko Udalak lizentzia gehiago eman nahi zituen herrian zerbitzua emateko; gu, gehienetan, enpresei zerbitzua ematen aritzen ginen eta askotan ez zen taxirik egoten taxi geralekuan. Hala eta guztiz ere, eta ikusita Gipuzkoako beste herri askotan bateratzeak onurak ekarri dituela, gurean ere antzekoa egitea proposatu genion Udalari. Onartu egin zuen eta harrezkero hiru herrietako taxiek zerbitzu bateratua ematen dihardugu".

Oñatiko Udalak ere oraintsu onartu du taxilariek aurkeztutako hitzarmena. Debagoieneko Mankomunitatea ari da bitartekari lana egiten. Izan ere, taxiek bat egiteko Udalen laguntasuna eskatu zuten taxi gidariek. "Udalei taxi baimen gehiago ez emateko –eskatzeko, izan ere, Aldundiak ematen baititu lizentziak– eskatu genion; ibarrean dauden gidariekin zerbitzua emateko nahiko gaudela argudiatuta". Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko udalek onartu egin dute taxi gidarien proposamena, baina baldintza bat jarri dute udalek: zerbitzua egokia ez bada eta taxi baimen gehiago behar direla uste bada, aukera hori aztertu egingo da eta Diputazioari taxi baimen gehiago eskatuko zaizkio. Jose Angel Iborrak, ordea, ez du uste lizentzia gehiago beharko

24 orduko zerbitzua egongo da eskualdeka antolatu ostean

Debagoienean 37 taxi baimen daude. Taxilarien ustez, nahikoa da eskaria asetzeko

DEBAGOIENEKO TAXI ZERBITZU BATERATUA

direnik; izan ere, euren proposamena "zerbitzu hobea emateko aukera sortzeaz gainera, gehiegizko eskaintza dagoen udalerrietako taxilariek zerbitzu falta dagoen udalerrietan lan egiteko aukera izatea da".

ELGETAN ZAIN

Elgetako Udalak eskatuta dauka taxi baimena Diputaziora. Udaletik azaldu digutenez, Aldundiak ez du oraindik erantzun, ibarreko taxien eskualdekotze proiektua nola arautzen den zain daudelako. Iborraren iritzi, Elgeta lako herri baten lizentzia bat ematea ez da bideragarria.

"Taxilariak zerbitzu barik ez du dirurik irabazten eta Elgetan zerbitzu nahikorik izango ote lukeen zalantzan nago. Beste aukera bat ere badago: taxi-busa jartzea. Arrasateko Udalak orain dela 3 urte jarri zuen. Udalak diruz laguntzen duen zerbitzua da eta erabiltzaileak herri-busaren prezioa baino ez du ordaintzen. Osterantzean, gaur egun beste herrietan dagoen funtzionamenduak balioko luke zerbitzua emateko".

TARIFA BATERATUAK

Eskualdekotze proiektuak ekarri duen aldaketetako bat izan da tarifak bateratzea. "Herri guztietako taxilariek prezio berberak kobratzen dituzte, tarifak bateratu ditugulako. Hori abantaila da erabiltzailearendako; aurrerantzean berdin izango da taxia Arrasaten edo Eskoriatzan hartu; taximetroak programaturik daude eta finkatuta dute irteera kostua eta kilometroaren ordainsaria". Lau tarifa daude finkatuta. Lehenengo biak herri barruko prezioari dagozkio; beste biak, herri artekoak dira eta Jaurlaritzaren prezio batzordeak adosten ditu Euskal Autonomia Erkidego osorako.

Herri arteko prezio bateratuak ez dira oraindik indarrean jarri, baina Emilio Fernandez AGITAX (Gipuzkoako Taxilarien Elkartea) elkarteko lehendakariak adierazi digunez, "otsailetik aurrera indarrean sartzea espero dugu; ordurako ibarreko udaletan aurkeztutako hitzarmenak onartuta egongo baitira". Jaurlaritzak erabakiko du.

Tarifak eurotan

	1 tarifa*	2 tarifa*	3 tarifa*	4 tarifa*
Abiasaria	2,6712	2,6712	4,37	4,79
Egindako Km-ko	0,8374	1,3356	0,4645	0,5137
Itxaron ordua	16,006	25,1220	13,10	13,77

* 1 tarifa: herri barruan, egunez (07:00-23:00). 2 tarifa: herri barruan, jai egunez eta gauez (23:00-07:00) 3 tarifa: herri artean, egunez (07:00-23:00). 4 tarifa 2: herri artean, egunez (07:00-23:00).

36 taxi ari dira Debagoienean

Herria	Kopurua		
Oñati	7	Arrasate	11
Eskoriatza	1	Antzuola	1
Aretxabaleta	2	Bergara	14
Gatzaga	0	Elgeta	0

JOSE ANGEL IBORRA | DEBAGOIENEKO TAXILARIEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

"Herri batzuek behar dutena baino taxi gehiago dituzte"

M.D.

1993a ezkero dabil taxia gidatzen Arrasateko Jose Angel Iborra. Hura da Debagoieneko taxilarien elkarteko lehendakaria. Elkartea AGITAX Gipuzkoako taxi gidarien elkartearen barruan dago. Jose Angelekin aritu gara eskualderako osatu nahi duten zerbitzu bateratuari buruz.

AITOR LIZARRALDE

Nola sortu da eskualdeka antolatzeko asmoa?

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako ekimena izan da. Handik etorri zen taxien sektorea globalizatzeko egitasmoa. Eskualdeka antolatzeko proposamena izan zen eta gurean ere balekoa izan zitekeela ikusi genuen. Izan ere, badira herri batzuk behar dutena baino taxi gehiago dituztela eta beste batzuk, berriz, faltan.

Debagoienean zein da egoera?

Arrasaten, esaterako, 11 taxi baimen ditugu. Hala ere, enpresekin egiten dugu lan handien eta taxi geralekuan, askotan, ez da taxirik egoten. Udalak, premia hori ikusita, lizentzia gehiago eskatu nahi zizkion Aldundiari. Kontua da, ordea, Bergaran, esaterako, 14 taxi daudela eta eurek bete dezaketela Arrasaten egon daitekeen hutsunea lizentzia berririk sortu barik. Azken batean, herri batzuetan dagoen gehiegizko eskaintzarekin, beste batzuetan dagoen premia asetzeko ekimena da.

Zer ekarriko dio erabiltzaileari?

Hasteko taxi zerbitzua eguneko 24 orduetan izatea. Horrekin batera, tarifak bateratu beharra genuen eta horretarako Mankomunitatearen laguntza eskatu genuen. Hura ari da udaletara hitzarmena aurkezten herri guztietako herri barruko tarifak bateratzeko. Erabiltzaileak berdina ordainduko du herri batekoa edo bestekoa izan arren taxi gidaria.

"Antolaketa modu honekin 24 orduko zerbitzua egongo da eskualde osoan"

Nola funtzionatuko du sistemak?

Dei sistema bat probatzen hasita daude. Zenbaki bakarreko zerbitzua izango da. Erabiltzaileek taxia eskatzeko zenbaki bat izango dute eta deia hartzen duenak gestionatuko ditu libre dauden taxiak. Oraindik ez dago martxan gestio modu hori, baina etorkizuna hortik etorriko da.

• TAXIA ERABILTZEKO OHITURARIK BADUZU?

ARANTXA ETA MARI KARMEN |
ARRASATE

"Taxiak noizean behin erabiltzen ditugu. Etxean autoa daukagu, eta beste aukerarik ez dagoenean erabili izan dugu taxia".

Arantxak eta Mari Karmenek esan digutenez, autoa daukate biek ere etxean, eta, hori dela eta, gutxitan erabiltzen dute taxi zerbitzua. Arantxak esan digunez, "sasoi batean Uribarritik jaisteko gehiagotan erabiltzen genuen". Mari Karmenek dioenez, "taxi gehiegi dago Arrasaten; enpresendako lana egin ezean, ez dago bezero nahikorik guztiendako". Lagun bat taxilari duelako daki hori.

GREGORIO |
BERGARA

"Autoan ibiltzen naiz. Ez dut taxi bati deitzeko beharra sekula izan"

Gregoriok ez du inoiz taxia erabili. Autoan mugitzen da. Autobusa ere gutxitan hartu du. Taxi gidariek adostutako neurriak, ordea, onak iruditzen zaizkio bezeroaren mesedetarako.

TXARI, JOSE MARI ETA PERIKO |
ARRASATE

"Ez dugu taxirik erabiltzen. Auto gidariak gara eta ez dugu, orain arte, taxi premiarik izan. Hala ere, inoiz entzun izan dugu geralekuan taxirik ez dela egoten"

Perikok taxi gidari laguna dauka eta hari entzuna dio enpresetarako egiten dutela lan, gehienbat, Arrasateko taxilari gehienek. Hirurek euren autoak dituzte, eta, hori dela eta, "taxian ez dugu ibili behar izan". Arrasateko taxi geralekuan asteko egunetan 3-4 auto egoten direla ere esan digute, baina, aldi berean, "geralekura joan eta autorik ez" dela egoten ere entzun izan dute.

ARETXABALETA | KANUTO DEUNA, MARIHUANAREN ZAINDARIAREN EGUNA OSPATU ZUTEN ZAPATUAN

Erromerian atera zuten Kanuto Deuna bere omenezko jaiegunean

Nork bere marihuana hazi eta kontsumitzeko eskubidea aldarrikatzeko sortu zen Kanuto Deuna eguna orain dela bost urte

Marijo Deogracias

Marihuanaren erabilera terapeutikoa baimentzearen alde horrenbeste berba egiten den honetan, aretxabaletarrek marihuana hazi eta kontsumitzeko eskubidearen aldeko jaia ospatu dute bosgarrenez. Antolatzaileetariko batek zioen moduan, "kontua ez da aldarrikapena egitea; gurea gehiago da herriko jai bat egitea, herri ekimena bultzatzea eta, bide batez, inork belarra erre gura badu erre dezala!".

Horixe izan zen zapatuan egin zutena Aretxabaletan: Kanuto Deunaren omenezko jaia. Goizean bolo txapelketa jokatu zen eta Aitorrek irabazi zuen txapela. "Hogeita hamar bat lagun aritu gara –esan zigun batek–, gazteak eta nagusiak; giro polita egon da; tamalez galtzen ari den ohitura da, baina ea denon artean bultzadatxoa ematen diegun boloei".

EHUN BAT LAGUN

Bazkarian 130 bat lagun batu ziren Arlutz ondoko lonjan, "antolakuntzan jardun zutenak baino gutxiago, baina zer eginago diogu", esan zigun antolaketan jardundako batek. Giroa beroa eta goxoa zuten bazkalostean. Sarrerakoa, entsalada eta okela saltsan menuan; ardoa laguntzeko eta osterako "bagenuen pastela egiteko asmoa, baina hemen jende asko dago eta nor bere buruaren jabe izan ezean gurea da ardura", azaldu ziguten.

GONBIDATU BEREZIA

Kanuto Deunaren jaia baino lehen, aste barruan marihuanaren gaineko hitzaldia ere egin zuten. Martin Barriuso Pannagh elkarteko kideak hitz egin zuen eta zapatuan ere Aretxabaletan izan zen Barriuso. "Bost urte dela agindutako gonbita onartu dut azkenean. Oso giro polita dago eta horrelako ekimenak egokiak direla uste dut. San Kanuto jai askorik ez da egiten, eta ondo dago; atsegin dut jaiaren alde folklorikoa. Behingoagatik *armairutik atera* eta giro onean Kanuto Eguna ospatzeko aukera ematen du. Gainera, jendeak ondo erantzun duela iruditzen zait", esan zigun Barriusok, giroan ke pixka bat genuela; usaina ere, zintzo izateko, gozoa!

"Herri ekimena bultzatzeko ospatzen dugu Kanuto Eguna"

Bolo txapelketa, bazkaria, zozketa eta Kanuto aldean hartuta kalejira egin zituzten

AITOR LIZARRALDE

130 bat lagun elkartu ziren Kanuto Deunaren eguneko bazkarian.

MUSIKA ETA ZOZKETA

Bazkalostean Iñaki Sagasti bakarlari aretxabaletarra igo zen taula gainera. Juan Luis Lekunberri ere animatu zen geroago. Arratsaldean Elektrotuna taldearekin batera atera zuten Kanuto Deuna kalejiran, eta ohiko bihurtzen ari den erreketa-poteoa egin zuten.

Kanuto Deunaren eguna lagun talde baten lanerako gogoarekin antolatu dute. Udalak bazkarirako aulkiak eta mahaiak uzten dizkie, baina gastuei aurre egiteko autofinantzazioa behar izaten dute eta aurten txartelak saldu dituzte. Saria: snowboard taula eta belar poltsa.

M.D.

Iñaki Sagastari egokitu zitzaion bazkalostea animatzea; baita porroei ere.

• ATE IREKIEN JARDUNALDIA

ALMENGO UMEEK EZIN HOBETO PASATU ZUTEN ZAPATU ARRATSALDEA

Zapatu arratsaldean, 16:00etatik 19:00ak bitartean ate irekien jardunaldia izan zuten Arizmendi ikastolan, Eskoriatzako Almen gunean, hain justu ere. Gurasoak seme-alabekin batera joan ziren, Haur Hezkuntzako azkeneko urtean diharduten 5 urteko seme-alabekin, hain justu. Datorren urtean Lehen Hezkuntzara egingo dute jauzi, eta horixe izan zen Arizmendik ate irekien jardunaldia antolatzeko arrazoia.

Jolas egiteko aukera izan zuten Almenen, eta baita ipuinak entzun eta La Monda pailazoekin barre egiteko ere.

AITOR LIZARRALDE

Labur

HUEZIko 26 ikasle atzerrian praktikak egiten

MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 26 ikasle atzerrian dira praktikak egiten. Guztiek Irakasle ikasketak egiten dihardute, 3. mailan, eta urtarrila eta otsaila bitartean egongo dira atzerrian. 19k Hego Amerikan dihardute: Guatemalan, Nikaraguan, Venezuelan, Txilen eta Kuban, eta Haur Hezkuntza eta Hezkuntza Bereziko ikasleak dira. Gainerako zazpiak Atzerriko Hizkuntza espezialitatekoak dira eta Galesen, Irlandan eta Ingalaterran daude.

AITOR LIZARRALDE

Hamar kilo txorizo ekarri zituen Sebastian Aldai harakinak bere auzoko San Bixente egunerako.

Angiozarko Partaittin urteko txakolina dastatu zuten auzotar eta bisitariek

San Bixenteren omenezko mezaren ostean, Altzuaran Azpikoan, txorizoa, salda eta urteko txakolina banatu zituzten auzotarrek

Marijo Deogracias

San Bixente eguna zapatuan izan arren, domekan ospatu zuten Angiozarko Partaitti auzoan, Bergaran. Mezetara joateko hitzordua zegoen eguerdirako, eta, mezaren ostean, Altzuaran Azpikoan, mezetara joandakoei beste horrenbeste lagun elkartu zitzaizkien: lau kilo oilorekin egindako salda beroa, hamar kilo txorizo pintxo eta Arrasateko Hegiandi baserrian egindako bost kaxa Kataide txakolin zituzten zain. Urteroko ohiturari jarraituz, Partaitti aukeratu zuen Kataidek urteko bere txakolina aurkezteko, eta, San Bixenteren omenezko jaian, Angiozarko auzora hurbildu zirenek dastatu zuten Jabier Arregik egindako txakolina. "Kolore dotorea, gustu gozoa eta edateko erreza", izan ziren jende artean gehien entzun genituenak, txakolinaz.

"Txorizo gutxi egin dugu aurten", esan zigun Partaittiko seme Sebastian Aldaik. "Okela ere ekarri dugu; lau bat kilo", baina "berriketan geratzen diren erretiratuei aterako diegu", esan zigun txorizoa mozten jardun zuen auzotarrak.

JENDE MORDOA

Jende asko eta asko animatu zen Partaittira igotzen; batzuk autoz, baina beste asko mendi buelta egin ostean. Giroa benetan ona egon zen Altzuaran Azpikoa baserrian; etxostean eta aterpean prestatu zuten auzotarrek hamaiketako bikaina. Aukeran ardo beltza ere egon zen, baina bertaratutakoek jakin bazekiten urteko txakolina zegoela, eta gustura asko hartu zuten guztiekin Kataideko ardoa.

• NOLA DAGO URTEKO TXAKOLIN BERRIA?



JABIER | KATAIDE

"Urteko txakolina erraz edatekoa atera zaigu. Kolorea ere dotorea dauka, eta emakumeek gustura edatekoa da!".

SEBERIANO, JUAN ETA BIZENTA | BERGARA

Juan anfitrioi aritu zen Seberiano eta Bizentarekin, Kataideko txakolina dastatzen. Gozo dagoela, ona dela, esan ziguten hirurek. "Kolore horixka ederra dauka; usaina ere bai, eta bitza duela ematen duen arren, ez da garratza" esan ziguten.

FELIX | BERGARA

"Getarian nagoela dirudi", esaten ari zen Felix. "Txakolina ondo sartzen da, ahoa betetzen du eta fruta-usainekoa da".

LARRAITZ ZEBERIO

ELAko kide Egoitz Iturbe prentsa agerraldian.

ELA sindikatuak ezetz esan dio Europako Itunari

Larraitz Zeberio

Ezetzaren aldeko bozka eskatu du ELA sindikatuak datorren otsailaren 20an egingo den Europako Itunaren erreferendumerako. "Hau ez da konstituzio bat", azaldu zuen bariku eguerdian Arrasaten ELAko Egoitz Iturbek. "Ez da prozesu konstituzionalik egin, ituna estatuburuek adostu dute gizartearen inongo parte-hartzerik gabe eta testua ez da ezagutzera eman".

ESKUBIDE MURRIZKETA

Europako Itunak eskubide murrizketa handiak ekarriko dituela ohartarazi du ELAk. "Tratatu horren lehen helburua merkatua da, pertsona eta giza eskubide guztien gainetik", adierazi zuen Egoitz Iturbek. "Enplegua eta lan eskubideak alde batera uzten ditu, eta ezegonkortasuna, kontratuen malgutasuna eta kaleratzeak ahalbidetu". Azkenik, Iturbek gaineratu zuen itunak herrien autodeterminazio eskubidea onartzen ez duela.

MOBILIZAZIOAK

ELAk informazio kanpaina iragarri du datozen egunotarako. Diptikoak banatuko dira eta mahai inguru bat bultzatuko da.

• BATASUNAREN EKARPENA

AITOR LIZARRALDE

ASIER IMAZ ELGETAN

Egubakoitzean Asier Imaz (ezkerreko aldean) Batasunako kidea Elgetan izan zen. Debagoieneko Batasunak antolatuta etorri zen, kultura etxeko liburutegira. Han batutako jende multzoari ezker abertzaleak azaroaren 14an Anoetako belodromoan aurkeztutako ekarpen politikoaren berri eman zien, Sebastian Arantzabal elgetarrarekin batera.

Halako beste bi aurkezpen gehiago ere egingo dituztela aurreratu dute Debagoieneko Batasunatik: bihar, martitzena, Eskoriatzako kultura etxean 19:00etan, eta otsailaren 2an, Arrasateko Monterron jauregian, 19:00etan.

UBANE MADERA

Ander Rodriguez zinegotzia da Bizigune programaren arduraduna Arrasaten. Irudian, Biziguneren autobusean.

Arrasaten egon da Bizigune programaren autobusa

Etxe hutsak merkaturatzeko programa ezagutzera ematea du helburu autobusak, eta EAEko 25 herritan barrena ibiliko da.

M.B.

Egubakoitz goizean iritsi zen Eusko Jaurlaritzak abian jarritako Bizigune programaren autobusa Arrasatera. 16:00etatik 19:00etara bitartean izan zen han, eta bi arduradunek hurbildu ziren herritarrei Bizigune programaren gaineko informazioa eman zieten. Baita Arrasateko Udaleko zinegotzi Ander Rodriguezek ere, hura da-eta Bizigune ekimenaren arduraduna Arrasaten. Izan ere, hitzarmena sinatu zuen iaz Udalak Jaurlaritzarekin Bizigune programan sartu eta herriko etxe hutsak errentan emateko. EAEko bigarren herria izan zen hitzarmena sinatzen —Debagoienean bakarra, oraingoz—, Bilboren ondoren; gaur egun zortzi udalek dute sinatuta hitzarmena.

Dagoeneko 24 etxebizitza huts eskuratu dituzte Arrasaten

KANPAINA AKTIBOAGOA

Arrasaten dagoeneko 24 etxebizitza huts eskuratu dituzte. Rodriguezek esandakoaren arabera, aurrerantzean kanpaina aktiboagoa egingo dute, eta, hain zuzen, etxebizitza hutsak dituzten jabeengana zuzentzen hasteko asmoa dute. Bestalde, martxoan pertsona batek jardungo du halako etxebizitzen gaineko inkestak egiten. Behin inkestak egin ostean jabeekin harremanetan jarriko dira eta Bizigunen parte hartzea proposatuko diete.

Debagoieneko lau preso gose greban dira gaurtik otsailaren 3a bitarte

Larraitz Zeberio

Txandakako gose grebak egiten ari dira euskal presoak estatus politikoa onar dakien. Gaur, astelehena, hirugarren txandako presoek ekingo diote hamaika eguneko baraualdiari. Debagoieneko presoei dagokienez, gose greban egongo dira otsailaren 3a arte Fleury Merogis espetxean dauden Igor Letona arrasatearra eta Ane Miren Alberdi bergararra, Granadan preso dagoen Jose Ignazio Gaztañaga arrasatearra eta Jaengo espetxean dagoen Joseba Arregi oñatiarra. Urtarrilaren 14az geroztik Puerto de Santa Maria espetxean gose greban egon den Josu Uribetxebarria arrasatearrak gaur utziko dio baraualdiari.

MONIKA BELASTEGI

Mediku jantzita jaso zituzten Antzuolako EHEko kideek sinadurak.

Ehunka sinadura osasun zerbitzuak euskalduntzeko

M.B.

Ibarrean ere Euskal Herrian Euskaraz taldeak osasun zerbitzuak euskalduntzeko eskaerak batzeko mahaiak jarri zituen zapatuan. Arrasaten, Bergaran eta Antzuolan jarri zituzten mahaiok, eta ehunka sinadura batu dutela adierazi dute. Antzuolaren kasuan, eratu berri dute taldea eta zapatukoa herrian egin duten lehenengo ekintza izan da. 103 sinadura batu zituzten bi orduan, eta pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin.

Eskoriatzan kexu, AP-1 autobidearen lanak direla eta

Lurjabeak haserre daude, Aldundiaren kamioiak desjabetu gabeko lurretan sartu direlako

Larraitz Zeberio

Hasi dira Eskoriatzan AP-1 autobidearen lanak, eta bertako baserritarrak kexu dira Aldundiaren jarrerarekin; izan ere, lanak aurrera eramateko lursailak desjabetu dizkiete. Duela astebete, gainera, desjabetu gabeko lurretara sartu ziren kamioiak, abisatu gabe eta inori baimenik eskatu gabe.

Ahinara Zubizarreta eskoriatzarrak gertaera hori salatzea erabaki zuen, eta egun Aldundiarekin akordio batera heldu baldin bada ere, errespetu handiagoa eskatzen du inguruetako baserritarrekiko.

"Pinuak jaisteko pista egitekoak ziren, baina inori ezer esan gabe nire lursailetik pasatzen den pista erabiltzea erabaki zuten", adierazi du Ahinarak. "Pinu enborrak, bestalde, argindar eta telefono poste biren kontra utzi zituzten, eta bi horiek pisuaren eraginez lurrera botatzeko arriskuarekin".

ARTXIBOA

AP-1 autobidearen kontra autokarabanak egin zituzten iaz eskoriatzarrek.

Ahinarak lanak geldiarazi zituen joan den astelehenean, Aldundiarekin adostasun batera iritsi bitartean. "Jakin dut Mazmela eta Marin inguruetan horrelako beste kasu batzuk ere izan direla". Ahinarak gehitu du halakoak salatu egin behar direla, "beldurrik gabe, Aldundiak baserritarrekin adostutakoak bete behar dituelako".

Edorta Arana arrasatearrak argitaratu berria du Udako Euskal Unibertsitatearen babesarekin *Programaziogintza irrati-telebistan* liburua. Bi hedabide horien bilakaera, eskaintza eta kontsumoa aztertu ditu programazio-ereduak zeintzuk diren eta nola funtzionatzen duten ulertzeko. Telebistaren nagusitasun soziala nabarmendu du. Euskaldunok, egunean, 202 minutuan egoten gara telebista aurrean. Kontsumo kritikoagoak garatu beharko genituzkeela uste du Aranak.

EDORTA ARANA | EHU-KO IRAKASLEA ETA LIBURUAREN EGILEA

"Kontsumo kritikoagoa garatu beharko genuke hedabideekin"



LARRAITZ ZEBERIO

Edorta Arana irakaslea da EHUko Kazetaritza Fakultatean. Ikasleekin erabiliko du egindako lana.

Larraitz Zeberio

Liburua kaleratu berria duzu. Zein izan da zure lanaren xedea?

Esango nuke nahiko lan deskriptiboa dela. Euskal Herrian espainiar eta frantziar hedabideek oso presentzia handia dute. Hortik abiatuta hedabide horien guztien bilakaera, kopurua, programazioa eta audientzia datuak aztertu ditut, besteak beste. Lau zutabe nagusi jorratzen ditu liburuak: programazio eskaintza, kontsumoa, audientzia ikerketak eta programazioa.

Lan potoloa egin duzu. Nola deskribatuko zenuke irrati-telebistako programazioa gaur egun?

Uste dut oso momentu berezian gaudela eta joera nagusi batzuk izaten direla leku guztietan. Kapitala kontzentratuta dago eta gutxi batzuen esku daude hedabide gehienak. Bestalde, sinergiak sortzen dira hedabide horien artean, eta enpresa berak irratia, telebista eta prentsa idatzia ditu.

Zein desberdintasun daude telebistaren eta irratiaren artean?

Kontsumo desberdinak gertatzen dira. Gero eta ikerketa gehiago egiten dira horren inguruan. Irratiak informazio eta betegarri lana egiten du. Telebista, aldiz, entretenimendura bideratuta dago. Bere nagusitasun soziala, gainera, gero eta nabariagoa da.

Telebistaren kasuan, bestalde, jende gehien erakartzen duten generoak fikzioa, informazioa eta miszelanea dira. Miszelanea –edo saski nahaskia– prentsa arrosa, gaurkotasuna, elkarrizketak, eta abar nahasten dituzten saioak.

Nolakoa da telebista kontsumoa?

Jendeak eskaintzen zaizkion produktuen artean aukeratzen du. Ez du beste aukerarik. Programazio konkretu bat nahi izanez gero ere ez du eskatzeko modurik. Horixe da, hain zuzen, gaur egungo egoera.

Zein da, orduan, programatzaileen lana?

Programatzaileak teknikaren eta artearen arteko orekan aritzen dira. Teknika audientzia datuak dira, eta berehala jasotzen dituzte, gainera. Artea, aldiz, intuizioaren eremuan dago, eta apustuak egitea da. Aurretik egin ez den produktu berri baten aldeko apustua egitea. Bere garaian, *Esta noche cruzamos el Mississippi*, *La Sonrisa del Pelícano*, *Gran Hermano*, *Bizizaleak*... apustuak izan ziren. Apenas egiten da apusturik orain, eta telebistagintzan egin direnak, denak, ikusgarritasunaren aldekoak izan dira. Ez da informazioaren eremuan inongo apustu berririk egin.

Programatzaileek zer diote telezaborraren inguruan?

Zer da telezaborra? Jakingo zenuke definizioren bat ematen? Egin izan dira, baina oso zaila da. Programatzaileek audientzien presioa sumatzen dute gero eta gehiago. Programazioak gero eta jende gehiago erakartzeko eta gero eta fakturazio handiagoa lortzeko egiten dira. Audientzia datuak eta publizitate fakturazioa lotuta daude. Programaziogintza publizitatearendako habia bat eraikitzea da, gero bertan iragarkiak eta espotak sartzeko.

"Euskal Herrian oso presentzia handia dute espainiar eta frantziar hedabideek"

"Eskaintzen zaigun programaziotik aukeratu behar dugu. Ez dugu eskatzeko modurik"

Hedabide publikoetan beste faktore batzuek egon beharko lukete indarrean, hala nola: zerbitzu publiko bat eskaintzea, pluraltasuna, kultura... Baina zaila da publizitatea ez den beste barometro bat erabiltzea hedabide pribatuek horren presentzia handia duten merkatuan. Hedabide publikoak filosofia horrekin kutsatuta daude.

Denak balio du programatzaile batendako?

Lehen esan dugu neurri handi batean audientzia datuetan oinarritzen direla euren lana egiterakoan. Hori lortzeko asmoz ia dena egiteko prest daude. Euren lana egunetik egunera neurtzen da eta kolokan dago etengabe. Gauzak ondo doazenean eta audientzia datuak onak direnean denen ospakizuna izaten da. Gauzak gaizki doazenean, ordea, orduan hasten dira ardurak banatzen, eta programatzailearendako izaten da egurra.

Gogorra orduan programatzaileen lana, ezta?

Oso zaila. Programatzaileek gaur egun jarraitzen duten arau-rik markatuena konpetentzia zertan ari den aztertzea da. Gero eta apustu gutxiago egiten dira. Audientzia onak lortzen dituzten saioak kopiatzen dira.

Nola neurtzen dira audientzia datu horiek?

Oso epe laburrean, egun batetik bestera. Berehala jakiten dute atzoko programa batek kale egin ote zuen beste baten onerako. Ahaztu egiten da programek bizizikloa izaten dutela, eta askotan ez zaie garatzen uzten. Konpetentziarekin benetako lehiarik ez da gertatzen. Hasiberritako saio bat nekez gailenduko zaio oso oinarri sendoa duen programa bati. Lehenengo emanaldietan ez bada audientzia datu onik ateratzen berehala erretiratzen dituzte saioak.

Audimetroetan ere aurrerapauso handiak gertatu dira, ezta?

Orain arte aparatu batzuk jartzen ziren etxeetan. Hego Euskal Herrian 331 daude; Espainiako Estatuan 3.305 eta Frantziako Estatuan 3.150. Gutxi dira, baina industriak fidagarri moduan onartzen ditu, eta oso modu automatikoan biltzen dira datuak. Orain, bestalde, prototipo berriekin ari dira PPN (Personal People Meter) izenekoak. Bi modelo daude, kutxatxoak eta ordulariak. Soinean eraman behar dira eta edonon sartzen zarelarik, irratia edo telebista entzuten bada, zein kate den detektatzen dute segidan.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Gaur egun gurutze-bide batean gaude eta gurutze-bide hori digitalizazioa da. Gauzak asko aldatuko dira digitalizazioarekin. Eragina izango du emisioan, edukietan, kontsumoan, medioen arteko konbergentzian. Panorama asko aldatuko da.

Gomendio bat kontsumitzaileendako?

Kontsumo kritikoak egin beharko genituzke. Garrantzitsua da jakitea telebista eta irratien atzetik enpresak daudela eta enpresa horiek fakturazioa dutela helburu. Telebista eta irratia gure gorputzetik aparte ikusi beharko genituzke. Jeneralean ez da gertatzen distantzia hori. Ondo egongo litzateke telebista gidetan begiratu eta ikusi nahi duguna aldez aurretik aukeratzea.

"Kapitala kontzentratuta dago eta gutxi batzuen esku daude hedabide gehienak"

"Programatzaileek audientziak handitu behar dituzte iragarki fakturazioa areagotzeko"

LARRAITZ ZEBERIO

Protesta-mobilizazioak areagotu egingo dituztela adierazi dute Oñatiko San Martin egoitzako langileek.

LANUZTEAK OÑATIN | SAN MARTIN EGOITZAKO 12 LANGILE HASERRE

Eulen SAk eten egin du negoziazio prozesua

Lankideek exijitu dute hiru kaleratuak lanera itzultzea

Larraitz Zeberio

Urtarrilaren 17a ezkero geldirik dago negoziazio prozesua Oñatiko San Martin egoitzako 12 langileren eta Eulen Servicios Socio Sanitarios SA enpresa azpikontratatuaren artean.

"Enpresak alde batez hartutako erabakia da hau", adierazi dute langile bozemaileek. Berriki hiru lankide kaleratu ditu enpresak zerbitzu amaieraren aitzakiarekin. Beste bi kontratatu ditu, eta egoitzako serorak ari dira hirugarren postua betetzen".

Langile taldeak salatu du abenduko soldata –jaiegunak barne– 116.000 pezeta izan dela, ez dutela lan egutegiaren berri eta horiek ez direla lan baldintza duinak. "Enpresak ez ditu borondatezko hobekuntzak onartu nahi. Guk ezinbestekotzat jotzen ditugu eta lortu arte borrokan jarraitu behar dugulakoan gaude".

Eguneroko lanuzteekin jarraituko dute 12 kaltetuek. Gaur, astelehena, bildu egingo dira lanuzteak areagotu edo ez erabakitzeko.

Garabien grebak ez du oraingoz eragin gurean

A.G.

Debagoieneko garabi-zaleek ere bat egin dute Abeac euskal garabi-zaleen elkarteak deitutako grebarekin. Sei garabi daude ibarrean: hiru Bergaran eta beste horrenbeste Arrasaten, eta guztiek egin dute greba.

Grebak ez du oraingoz ibarreko errepideetan eragin nabarmenik izan. Hala eta guztiz ere, lanuzteak martitzenera arte iraungo duela azaldu dute Abeac elkarteko iturriek, egun horretan baitute aseguru etxeekin batzarra.

Egubakoitzean ekin zioten garabi-zaleek grebari, autoak jasotzeko kostuen gainean aseguru etxeekin adostasunik egin ez dutelako. Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko garabi enpresek ekin zioten egubakoitzean; eta Nafarroako garabi-zaleek zapatuan egin zuten bat grebarekin.

Bestalde, Abeac elkarteak dio aseguru etxeek borondaterik ez dutela arazoa konpontzeko. Udako grebaren ondoren egindako txostenaren arabera, hondatutako ibilgailua jasotzeagatik aseguru etxeek 50 euro ordaindu beharko lituzketela azaldu dute Abeac elkarteko iturriek, eta ez gaur egun ordaintzen dituzten 20-23 euro-ak. Hori horrela, adostutakoa hautsi egin dutela gehitu dute eta tarifa barregarriak jaso dituztela.

AITOR LIZARRALDE

Egunotan geldi ikusi ditugu ibarreko garabiak.

ETEei laguntzeko hitzarmena

Euskadiko Kutxak sinatu du Europako Inbertsio Bankuarekin

A.G.

Euskadiko Kutxak eta Europako Inbertsio Bankuak hitzarmena sinatu dute Enpresa Txiki eta Ertainen (ETE) eta tokiko zein lurraldeko erakunde publikoen inbertsio proiektuak laguntzeko.

Finantzaketa hitzarmena 100 milioi euro da, eta Euskadiko Kutxak finantzatuko ditu, hain zuzen: ETEen ekoizpenaren eta posizio lehiakorraren sendotzea helburu duten proiektuak, eta baita ere azpiegiturak sortzea edo hobetzea helburu dutenak eta ingurumena zaintzea, kutsadura txikitzea eta aurrezpen edo dibertsifikatze energetikoa helburu dutenak.

Hitzarmenak zehazten du egiten den inbertsioaren %50 finantzatzea.

ARTXIBOA

Euskadiko Kutxak Europako Inbertsio Bankuarekin egin du hitzarmena.

Enpresa orrialdearen babeslea:

SEIN grupo taldea

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

OÑATI
Tel.: 943 71 80 80
Faxa: 943 71 80 45

ARRASATE
Tel.: 943 71 24 24
Faxa: 943 71 22 98

ARETXABALETA
Tel.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 20 04

www.memesa.com

Albiste izango da

ARRASATE | BAZKARIRAKO IZENA EMAN BEHAR DA

80 urtetik gorakoak omenduko dituzte eguenean, Uribarri auzoan

Eguenean Uribarriko erretiratuen elkarteak omenaldia egingo die 80 urtetik gorako bazkideei. Besteak beste, bazkaria izango dute 14:00etan. Interesatuok elkarteko bulegora jo izena ematera edo 943 77 18 29 zenbakira deitu, 18:00etatik 19:00etara.

Bestalde, Santa Marinako Toki Argi erretiratuen elkartekoek Parisera bidaia egingo dute maiatzaren 8tik 19ra. Elkarteko lagunek izango dute lehentasuna, eta bi autobus bete gura dituzte. Lortu ezean, bazkide ez direnek ere joateko aukera izango dute. Interesatuok bulegora jo astelehen, eguazten edo egubakoitz goizetan.

ARRASATE | IZENEMATEA ZABALIK DAGO

Denetariko ikastaroak antolatu dituzte Emakume Txokoan

Hainbat ikastarotarako izenematea zabalik dago Emakume Txokoan: barreterapia, altzari txikiak berritzea, autoestimua, asertibitatea eta komunikazioa, jazz eta funky dantza, autoaren mekanika eta mantentze-lanak eta tailer libreak. Otsailean eta martxoan izango dira ikastarook. Izena emateko, deitu 943 79 41 39 telefono zenbakira.

Horrez gain, gogoratu Martxoaren 8ko VIII. Kartel Lehiaketaren oinarriak kaleratu dituztela. Leloak izan behar du: *Martxoak 8 Arrasaten eta Munduan*. Lanok aurkezteko epea otsailaren 16an bukatuko da eta Arrasateko udaletxeko Emakume Sailera eraman behar dira. Informazio gehiagorako deitu 943 79 41 39 zenbakira.

ELGETA | 19:30EAN, ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

Goibeko kultura elkarteak batzar orokorra egingo du eguaztenean

Goibeko kultura elkarteak urteroko batzarra egingo du etzi, eguaztena, Espaloia Kafe Antzokian, 19:30ean. Goibeko elkartetik adierazi dutenez, elkartearen urteko jarduna eta Espaloia Kafe Antzokia izango dira batzarraren gaiak. Horrez gain, presidentea aukeratuko dute. Batzarrera hileroko kuota ordainduta duten bazkide guztiak daude deituta. Oraindik bazkide txartela egin ez eta egiteko asmoa dutenek Espaloian bertan dute horretarako aukera.

Bestalde, Udalak aditzera eman du hautesle errolda ikusgai dagoela udaletxeko idazkaritzan. Eguenera bitartean egongo da ikusgai, gura dutenek ikusi eta erreklamaziorik balego egin ditzaten.

DEBAGOIENA | ARRASATEN, EGUBAKOITZEAN

Atzerritartasun erregelamenduaren gaineko azalpenak emango dituzte

Atzerritartasun erregelamendua (abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretua) otsailaren 7an indarrean sartuko dela eta, Eusko Jaurlaritzako HELDU zerbitzukoek erregelamendu berriak aurreikusten duen erregulazio prozesuari eta beste hainbat arlori buruzko azalpenak eman nahi dituzte.

Horretarako hitzaldi irekia egingo dute urtarrilaren 28an, 18:30ean, Arrasateko udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Hain zuzen ere, debagoiendar guztiei zuzendutako hitzaldi irekia izango da biharkoa.

ARETXABALETA | 19:00ETAN, UDALETXEKO GANBARAN

Aizkorriko parke naturalaren gaineko hitzaldia eguenean

Aizkorri-Aratz mendilerroko natur baliabideak antolatzeko planaren lehenengo onarpena egin zuen Eusko Jaurlaritzak duela bi hilabete. Plan hori ikusgai dago otsailaren 22ra bitartean Aretxabaletako udaletxeko Hirigintza Sailean, alegazioak aurkezteko.

Hala eta guztiz ere, plana hobeto ulertzeko eta kezkak argitzeko, Eusko Jaurlaritzako Bioaniztasunaren zuzendari Josu Erkiaga Aretxabaletan izango da eguenean, hilaren 27an, azalpenak emateko. Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan, izango da udaletxeko ganbaran.

Hitzorduak

SAN PAULO JAIAK OSPATUKO DITUZTE UBERAN |

Bazkariak, tortilla eta mus txapelketak, musika... domekara bitartean

Bergarako Ubera auzoak San Pauloren omenezko ospakizunak hasiko ditu bihar, martitzena. Hain zuzen, bihar eta baita etzi, eguaztena, ere, 11:00etan meza eta 12:00etan salda eta txorizo jana izango dituzte auzotarrek. Egubakoitzean, hilak 28, bakailao afaria izango da, soinujoleek girotuta, 21:00etan.

Jaien egun handiak, baina, asteburuan etorriko dira. Zapatua ekitaldiz beteta izango da: 12:00etan, patata tortilla lehiaketa; 16:00etan, mus txapelketa eta, auzoko umeendako, kukainak; 18:00etan, txokolate jana; eta bukatzeko, domekan, meza, dantzaldia eta luntxa, eguerdian.

ARETXABALETA |

• Aquagym eta umeendako igeriketa ikastaroak

Udal Kirol Sailak antolatu ditu bi ikastarook. Aquagym eskolak astelehenetik egubakoitzera izango dira, eta gutxienez sei lagun behar dira taldea osatzeko. Umeendako igeriketa eskolak 3 urtetik gorakoendako dira.

• Batasunaren otzarako zozketako zenbaki irabazlea

Inguruko baserritarren produktuez osatutako otzararen zenbaki irabazlea da 0691. Batasunak eskerrak ematen dizkie parte hartu duten baserritar eta herritarrei.

ARRASATE |

• Arizmendi ikastolaren batzar informatiboak

Arizmendi ikastolak matrikulazioaren gaineko batzar informatiboak deitu ditu: hilaren 24an, Santa Teresan; 25ean, Umezaintzan; 26an, Basabeazpin; eta 27an, Jose Aranan, 18:00etan. Horrez gain, ate ireki egunak ere deitu ditu: Haur Hezkuntzan, Olarten (hilak 24 eta 25), Santa Teresan (25 eta 26), Umezaintzan (26, 27 eta 31), Basabeazpi (28 eta 31) eta Jose Aranan, edozein egunetan. Lehen Hezkuntzan: Almen (urtarrilak 22), Santa Teresa (25 eta 26) eta Gazteluondo (hilak 26), 16:00etan.

• Ipuin klasikoen gaineko berbaldia izango da eguenean

Ipuin klasikoen gainean berba egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak eguenean, hilak 27, Monterronen, 19:00etan, haur liburutegiak beldur aretoaren barne antolatuta. Gurasoo eta irakasleei zuzendutako ekintza da.

• Sagardotegi batera irteera eta bazkaria Besaiderekin

Itziartik Zumaiara mendi buelta, lehenengo, eta bazkaria Aiako sagardotegi baten, hori da Besaideren proposamena urtarrilaren 30erako, datorren domekarako. Izenematea 30 euro da bazkideendako, eta 35 gainerakoendako.

BERGARA |

• Zikloturista lizentzia berritzeko epea, zabalik

2005 denboraldirako lizentziak berritzeko unea iritsi da. Horretarako, Bergarako Txirrindulari Elkarteak kontu bat zabaldu du Kutxan. 92 euro sartu behar dira hor, eta ordainagiria Igartua edo IBI dendetara eraman.

ELGETA |

• Korrika Herri Batzarra osatzeko bilera egingo dute

Korrika Herri Batzarra osatzeko batzarra izango da hilaren 25ean, martitzena, kultura etxean, 20:00etan.

OÑATI |

• Urtxin loradendako sari bereziaren irabazlea

Urtxin loradendako sari berezia 587 zenbakidun txartelari egokitu zaio. Saria da lorontzi bat lore edo landare batekin.

• Spinning irakasle titulua lortzeko ikastaroa deitu dute

Spinning irakasle titulua lortzeko egun bakarreko ikastaroa izango da Zubikoa kiroldegian urtarrilaren 29an. Izena emateko, diru-sarrera egin behar da: 45 euro bazkideek eta 54 euro gainerakoek, Bankoako 0138 0005 16 0010325161 kontu korrontean.

• Denbora librearen gaineko hitzaldia Elkar Hezin

Denbora librea familian: jolasa, telebista… konpartitzeko guneak izeneko hitzaldia egingo du Eraberri taldeak bihar, martitzena, Beneditarren egoitzan, 19:00etan. Helburua da gurasoek eta ikastetxeak gai horren gaineko irizpideak bateratzea.

• 0-3 urte bitartekoen matrikulazioa, ikastolan

0-3 urte bitartekoen matrikulazioaz berba egiteko batzarra izango da bihar, martitzena, Txantxiku ikastolako aretoan, 18:30ean. Ikastolako proiektu pedagogikoa eta funtzionamendua aurkeztuko dituzte. Haurtzaindegi zerbitzua egongo dela iragarri dute.

Iritziak

Isilpekoak

943 76 92 71

goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Zer gertatzen da Iberdrolarekin?

Gure irakurle bat oso haserre agertu da azken asteotan bailarako zenbait herritan gertatutako argindar mozketekin:

"Zer gertatzen da Iberdrolarekin? Eguazten eguerdian ordu eta laurden argirik gabe gelditu ginen Bergaran. Gu bakarrik ez, gainera. Inguruko denda eta tabernek ere eten egin behar izan zuten euren jarduna. Argia eguerdiko 12etan joan zen eta ordu eta laurden geroago itzuli zen. Kontua da azken asteotan Elgetan eta Antzuolan ere antzeko zerbait gertatu dela. Antzuolan bitan, gainera, bertako batek esan didanez. Aldez aurretik abisatu gabe lau orduko argi mozketa izan zuten bi herritan. Kasualitatea da ala zerbaitetan ari dira eta ezjakintasunean gaude?"

• Akats baten zuzenketa

Aurreko asteko zenbakian, Danbaka musika lehiaketa dela eta, 21. orrialdean Unai Azkarate musikariak egindako adierazpenetan (Potemkin taldeari buruz) zera jarri genuen: "Gitarra-jotzailea ez zen beharrezkoa, baina oso ona zen". Horren ordez, ondorengoak behar zuen: "Gitarra-jotzailea oso ona zen, baina bere punteatze batzuk ez ziren beharrezkoak".

• Autoak nonahi Zubiaurretik Martokora

Beste irakurle batek txistu handi handia bidali digu Bergarako Zubiaurre auzoko egoera salatuz:

"Bergarako Zubiaurre auzoan bizi naiz eta jasanezina da Martokoko igoeraren egoera egunero-egunero. Auto gidariek nonahi aparkatzen dituzte ibilgailuak. Bi noranzkoko pasabidea blokeatuta gelditzen da puntako orduetan eta pasatzea ezinezkoa izaten da bizikleta batendako ere. Ezin da ezer egin?".

Sarean harrapatuta

Taberna gehiegi ala jende gutxiegi?

Zaila zen pentsatzea, baina badirudi hona ere heldu dela *afrantsesamentua*. Jende gutxiago ibiltzen da orain asteburu eta jai bezperako gauetan kalean, eta Oñatiko taberna batzuk itxi egingo dituzten zurrumurruak ere entzuten dira. Nola aldatu ditugu ohiturak? Hori izan da *Goiena.net*-en Oñatiko eztabaidan planteatu duten gaia. Tabernetako prezioak asko igo dituztela diote iritzia eman duten gehienek.

JENDE GUTXI IBILTZEN DA ORAIN TABERNETAN

Egia da, azkenaldian Oñatin ez dago parrandarik orain dela urte batzuekin konparatuz gero! Oñati behera doa... eta horrela, normala ere bada taberna batzuk ixtea.

Xaukena / www.goiena.net

EZ DUGU ZAPATURO IRTETEKO DIRURIK

Nire ustez kulpa prezioena da. Larregiko garestiak dira eta orain jendeak parrandak aukeratu egiten ditu; ez baitago dirurik zapatu denetan poteatzen ibiltzeko. Tabernariei esango nieke beherapenak edo eskaintza bereziak jartzeko.

Puttin / www.goiena.net

TABERNEI BOIKOTA EGITEA EZ DAGO GAIZKI

Ondo egongo zen zapatu gau batean Oñatiko plazan jende pila bat elkartu eta boteiloi antzerako bat egitea, tabernariei boikot moduko bat egiteko.

Oñatiarra / www.goiena.net

GAZTEAK LOKALETAN SARTUTA EGOTEN DIRA

Oñatiko gazte pila bat lokalekin atzeratzen goaz. Lehen harreman gutxi baldin bageneukan gure artean, bada orain gutxiago. Izan ere, jendea lokaletara sartzen da eta giltzarekin ixten dute. Han egoten dira gauetan.

Tristea da bakarrik edanda gaudenean erlazionatzea goizaldeko ordu txikietan. Ikustea besterik ez dago zenbat koadrila misto dauden, eta hori beste herri batzutan naturaltasun guztiarekin egiten da.

Gaztion / www.goiena.net

EDARIEN PREZIOAK GEHIEGIZKOAK DIRA

Taberna gutxi nire ustez ez. Tabernak lehengoak daude baina prezioak ez dira berdinak. Orduan jende gutxiago igartzen da kalean. Lehen egoten zen jendea, prezioak ondo baitzeuden; ez ziren oso garestiak eta gehienen eskura zeuden. Orain, berriz, ez. Ikusten dena da jende gazteak e ardoa zerbaitekin nahastuta hartzen duela; kalimotxo bat bai, baina askoz ere gehiago ezin. Ea zerbait egin daiteken lehengo jende piloa juntatzeko eta Oñatin berriz jendez beteta egoteko. Izan ere, lehen Oñatiko kaleak eta tabernak beteta egoten ziren.

Oñatiarra / www.goiena.net

ALTERNATIBAK BEHARREZKOAK DIRA

Ez dut uste taberna gehiegi dagoenik herrian. Kontua da, gazte jendeak lokaletan egoteko ohitura hartu duela. Seguru, horrek gerora kaltea ekarriko duela. Oñatiko gazteek ez dute elkar ezagutzen! Ez dut esaten tabernak direla jendea ezagutzeko lekua; tabernen aurrean alternatibak topatu behar dira eta lokalak ez dira alternatiba. Boteiloiarena ez da ideia txarra, baina bestelako ekintza batzuk ere egin daitezke, alkoholarekin zer ikusi zuzena ez dutenak.

Aitor / www.goiena.net

GAZTEENTZAKO EKINTZA GUTXI DAGO HERRIAN

Alkohola geroz eta garestiagoa izatea eta bizimodua garestitzeak eragina du. Baina, nik uste, Oñatin lokalen inguruan sortzen hasi den mugimenduak ere eragin handia duela. Mugimendu hori, gainera, zabaltzen doa eta gazteriak eurendako txoko bat edukitzearen gogoa indartzen doa. Koadrila askok nahiago dute lokalean sartuta egotea kalean ibiltzea baino. Asteburutan jende gutxi kalera irtetearen beste arrazoi bat Oñatin gazteentzako ekintza gutxi egiten direlako ere bada. Betiko eztabaida.

Mai / www.goiena.net

Halaxe erantzun digute

ETAko presoak askatzea zailtzeko neurriak adostu ditu Espainiako Auzitegi Nazionalak. Zer deritzozu ?

JOSE MARI ETXANIZ | PRESO OHIA

"Historia hau ez dago arautua. Aldaketa judizialik ez da izan. Zigor murrizketak espetxeak proposatzen ditu eta epaile batek onartzen. Fiskalak, legez, epe bat du helegitea aurkezteko. Bestalde, zigorra beteta daukan preso bat barruan edukitzea bahiketa da. Kontu hau mendekua da".

LARRAITZ UGARTE | ABOKATUA

"Giza eskubideak ezin dira alarma sozialaren edo interes politikoen arabera egon. Zuzenbide printzipioen aurkako neurria da eta etsaiaren zuzenbidea aplikatzea dakar. Bahiketa litzateke. Beste pauso bat da presoei dagozkien baino zigor kondena luzeagoak aplikatzeko".

UNAI URALDE | ARETXABALETAKO ASKATASUNA

Espainiako Estatuak lege propioak bere interesen arabera bortxatu eta aldatzea ez da berria. 3/4en kasua eta kondenak osorik betetzearena bezala. Hori ere presoen espetxe zigorra luzatzeko beste trikimailu bat da. Estatuaren joko zikinaren usaina nabaria da. Etxean izan arte borrokan segituko dugu.

MAIXABEL LASA | TERRISMOAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO TALDEA

Instituzioak errespetatu behar dira, gure ordezkari direlako. Dena den, legeak kartara ere ezin dira egin, komenientzien arabera. Biktimen azalean jarrita, ez da sinesgarria beste pertsona batzuk hil dituena hain urte gutxira ateratzea kartzelatik, zigorra bete arren, batik bat, harro ateratzen denean.

Egunkarietako harribitxiak

HOLOKAUSTOA 60 URTE GEROAGO

Eguenean, urtarrilaren 27an, 60 beteko dira Auschwitz-eko (Polonia) sarraski-eremua askatu zutela. Haren ondotik Buchenwald, Dachau, Mauthausen... askatu zituzten. Naziek sei milioi pertsona hil zituzten. *El País*-ek horren gaineko erreportajea jaso zuen atzoko gehigarrian.

EL HOLOCAUSTO
60 AÑOS DESPUÉS

El 27 de enero de 1945, el campo de exterminio de Auschwitz, en Polonia, fue liberado. Luego lo serían los de Buchenwald, Dachau, Mauthausen... Allí se descubrió la evidencia del mayor horror vivido en Europa en su historia: una verdadera fábrica de la muerte ideada y construida por el nazismo. Seis millones de hombres, mujeres y niños judíos y muchos otros gitanos, homosexuales o minusválidos fueron asesinados a conciencia bajo el mandato de Hitler desde 1933 hasta 1945. Han pasado seis décadas. Los testigos van desapareciendo, pero los efectos de todo aquello aún se sienten en lo político, en lo social, en los conflictos que asuelan el mundo. Por **Jorge Semprún.**

'El País Semanal'
2005-01-23

EUSKAL HERRIKO IRRATI BAT SORTZEKO BIDEAN

Euskal Herriko irrati bat sortzeko herri elkartea aurkeztu zuten zapatuan Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean: Azti-Begia elkartea. Elkarteko kideen esanetan, gaur egun Euskal Herrian irratigintzan dagoen hutsune nabarmenari erantzuteko asmoz sortu da ekimena. Batetik, Espainiako eta Frantziako irrati kateak eta bestetik, EiTB taldearenak daudela gogoratuta, horiek ez direla nahikoa iritzi zioten. Bide horretan, Euskal Herriko irrati nazionalaren falta dagoela uste dute, eta hutsune hori betetzen saiatuko dira. Irratiaren izaerari dagokionez, nazionala izango da: Euskal Herri osora iritsiko dena, Euskal Herri osoko berriak jasoko dituena eta Euskal Herriko ikuspuntutik bere lana egingo duena.

Euskal Herriko irrati bat sortzeko bidea hasi du Azti-Begia elkarteak

Agosti Xaboren omenez

KALEAN GORA

943 30 43 46

hitza

'Berria'
2005-01-23

Tira, tira...

Xabier Azkarate 'Duson' 'El Mundo' | 2005-I-23

Zorroztailea

Marka (La)

Iñigo Lamarka EAEko Arartekoak bi bilera izan zituen herenegun torturaren gaia aztertzeko. Horietako bat, Lamarkak atzo jakinarazi zuenez, Javier Balza Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburuarekin izan zuen; eta bestea, Torturaren Aurkako Taldeak adierazi zuenez, Amaia Urizarren gurasoekin eta TATeko kideekin.

'Berria' | 2005-01-22

Jota Jota Arrieta

Hau da marka! Lamarka, zehatzago. Bi egunkaritan azaltzen da tipoa gaurkoan, zapatu domeka arteko ordu txikietan idazten dut, eta bata bestearekin zerikusirik ez duten gaiekin, gainera. Goibururako bat aukeratu dut, baina bestea ere berdin-berdin aukera nezakeen. Albisteetako bat *Berria*-k dakar eta Donostian jasoa da; bestea *El Diario Vasco*-k dakar eta Vitoria-Gasteizen jasoa. Lehenak Arartekoa eta torturak hartzen ditu hizpide. Bigarrenak, berriz, Arartekoa eta *bullying*-a. Kasu baten kontatzen digu txostena egina dagoela eta tortura kasurik gerta ez dadin hainbat neurri proposatu dituela. Bestean, berriz, kontatzen digu txosten bat egitekotan dagoela Kataluniako Arartekoarekin batera.

Bi egunkari, bi arazo, bi txosten... Albisteetan hala ikusten ez badugu ere, esango nuke Lamarkak ondotxo dakiela aurrez aurre duen (dugun) mamua beti bat eta bera dela: errespeturik eza. Tokiz aldatuko du. Taktikaz aldatuko du. Izena aldatuko du. Baina beti bera izaten jarraituko du. Ruper Ordorikaren kantuak zioen bezala: borreroak baditu milaka aurpegi.

Eta ke artean galduta nabilen honek, behin borreroa aipatu eta gero, ezin ahaztu zapatuan Kanuto Eguna ospatu zutela Aretxabaletan. Ez dakit ospakizunak zertan izan ziren; bai, ordea, garai baten goiko mamuaren aurpegietariko bat, intolerantziarena, ezabatzeko jaiak izan zirela. Ea ba saiatzen garen mozorroak ezabatu beharrean borreroa bera ezabatzen. Hori bai izango litzatekeela marka. E!, Lamarka?

"Esango nuke Lamarkak ondotxo dakiela aurrez aurre duen (dugun) mamua beti bat eta bera dela: errespeturik eza"

"Ea ba saiatzen garen mozorroak ezabatu beharrean borreroa bera ezabatzen. Hori bai izango litzatekeela marka. E!, Lamarka?"

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

ERABILERA POLITIKOA MADRILEN

Madrilen egindako manifestazioan irain ugari egon zen. (...) Aznarren gobernu denboran helburu politikoekin egin den biktimen erabilpena –batik bat euskal nazionalismoaren kontra– badirudi orain aldatu egingo dela PSOEren gobernuaren kontra joateko; etorkizunak ekar dezakeenaren aurrean PSOE presionatu nahian.

Editoriala
2005-01-23

'El Mundo'

ASALDATU GUTXI BATZUK

Bono iraindu zuten pertsonak, seguru asko, eskuineko hautesleak dira. Baina ez du zentzurik balio konstituzionalak defendatzeagatik nabarmentzen den buruzagi sozialista hori iraintzea. (...) Litekeena da ETArekiko negoziazio posible baten zurrumurruek manifestariengan eragina eduki izana.

Editoriala
2005-01-23

'El Diario Vasco'

TERRORISMOAREKIN BUKATU

ETAren beso politikoa Herri Batasuna zela garbien esan zuen pertsona terrorismoak hil zuela hamar urte pasatu dira. Gaur egun, haren legez kanporatzea terrorismoaren porrotaren parte da. ETAk eta ezker abertzaleak garaipen bihurtu nahi dute porrot hori, herritarrek prezio politiko bat ordainduta, biolentziaren desagerpenaren truke.

Editoriala
2005-01-23

'Berria'

ELKARRIZKETA

"Batasunaren eta PSOEren artekoa elkarren beharra duten bi alderdien arteko hauteskunde marketinga dela uste dut; hau da, Batasunak burua altxatu beharra dauka, bai eta espazio politikoa izan beharra ere, Estatutu Berrirako Proposamenarekin jokoz kanpo dagoelako. PSOEri gauza bera gertatzen zaio".

Joseba Azkarraga
2005-01-23

ASTELEHENEKO Goienkaria

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Erredakzioa Marijo Deogracias, Jokin Etxebarria, Ion Unamuno, Jasone Zabala eta Larraitz Zeberio.

Jatorrizko diseinua Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Miren Almaraz | **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Presidentea Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KIROLA

• Mugarri Aikesak egundoko errepasoa eman zion Getxori | 19
• Lazkanok Euskadiko Txapelketako lehenengo pardidua irabazi zuen| 20

Unai Perez de Arenaza mendizale eta eskalatzaile bergararrarekin egon gara | 21

ARGAZKI PRESS

Denen ahotan dago Fernando Llorente gaztea, eta arrazoi osoz. Zapatuan ere, Yesteren lehen golean eta Tikoren golean zerikusi handia izan zuen.

ATHLETIC I OSASUNAREN AURKAKO PARTIDUAREN ZIRRARA EZ DA BEREHALA AHAZTUKO

"Athletic!, Athletic!, Athletic!": San Mamesen orro irabazlea

Ion Unamuno

4-3ko emaitza ez zen zaleen garaipena bakarrik izan; Yestek, Valverdek, Tikok, Guerrerok eta Llorentek zerikusi handia izan zuten partiduari buelta emateko orduan

Gidoilari onenak idatzitako partidua jokatu zuten Valverderen Athleticek eta Aguirreren Osasunak. Lehenengo 60 minutuetan Osasunak Pablo Garcia, Webo eta Puñalen bitartez egin zituen hiru gol zoragarriek aditzera eman zuten hiru puntuek Iruñera alde egingo zutela. Hala ere, azken 30 minutuetan partiduari buelta eman zion talde zuri-gorriak. Yestek birritan, Tikok eta Guerrerok egin zituzten lau golak, bata bestea baino garrantzitsuagoak; taldearen animua zeruraino altxatzen duten golak.

Bost minutu behar izan zituen Yestek San Mames osoak helburu bakartzat garaipena ipintzeko. Valverdek aldaketa esanguratsua egin zuen ondoren: Tiko eta Guerrero atera zituen zelaira, momentu txarra igarotzen zebiltzan bi jokalari karismatiko. Nafarrak lehenengo eta Portugaleteko jokalariak azkenik, 4-3koa ezarri zuten markagailuan. Pablo Garciak falta baten ondorioz baloi bat arean kokatu zuen, baina Arantzubiak bikain gelditu zuen. Harmailetan "Athletic!, Athletic!, Athletic!" orroak entzuten ziren azken falta jaurtiketa hartan.

Bertaratutakoek bazekiten ahazteko erraza izango ez den partidu baten aurrean zeudela, eta taldea animatuz euren eginbeharra ondo bete zuten.

ASTE BIRIBILA

Bai, horixe! Fernando Llorente aurrelaria lehenengo mailan ondo moldatzen dela konfirmatzea, Lanzaroteri 6-0 irabaztea eta, biribiltzeko, Osasunari 4-3 irabazi zion moduan irabaztea.

Urte hasiera bikaina eman dio Athleticek bai ligari eta bai kopari. Izan ere, hiru txapelketatan jarduteak duen meritua itzela da, eta hori txalotu egin behar da: *chapeau*.

• ZER DERITZOZU LEZAMAKO HARRIBITXI BERRIARI?

AGUSTIN CIPRI | ARRASATE

"Llorente oso jokalari ona da, eta orain, zorte pixka bat falta zaio"

"Lanzaroteren aurka hura izan zen aipagarriena, eta Espanyolen aurka ere ondo ibili zen. Llorente oso jokalari ona da, eta orain, zorte pixka bat falta zaio jokalari moduan handi izateko".

MACARIO | BERGARA

"Llorenteren agerpena ikusgarria izan da, jokalari ona da benetan"

Harrituta zegoen Macario Llorenteren jokoarekin. "Llorenteren agerpena ikusgarria izan da, jokalari ona da benetan". Dioenez, talde handiek begi bistan izango dute jokalaria.

CASTRO | ANTZUOLA

"Athleticeko jokoan ondo txertatzen den jokalaria da Fernando Llorente"

Urzaizek egiten duen lana ondo ezagutzen du Castrok eta Llorente ere fin ibiliko dela uste du: "Athleticeko jokoan ondo txertatzen den jokalaria da Fernando Llorente".



AITOR, MIKEL ETA AITOR | OÑATI

"Oso jokalari ona da Llorente eta pazientziaz asko hobetuko du oraindik"

Txundituta ageri dira Llorenteren jokoarekin Oñatiko hiru gazte hauek. Hori bai, gaztea izanda, diote lasaitasunez lan egin behar dutela gaztearekin: "Oso jokalari ona da Llorente eta pazientziaz asko hobetuko du oraindik".



ANTONIO, LUIS ETA NEKA | ARETXABALETA

"Jokalari osoa, fisiko onarekin eta bai goitik eta bai behetik ondo moldatzen da"

"Jokalari osoa, fisiko onarekin eta bai goitik eta bai behetik ondo moldatzen da. Gaztea izanda, ilusio eta gogo handia erakusten du lehen mailako bere lehen partiduetan. Urzaizen esperientziarik ez du, Valverdek jakingo du noiz erabili bakoitza".

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Malaga-At. Madril	1-0
Deportivo-Espanyol	4-1
Bartzelona-Racing	3-0
Levante-Reala	2-1
Albacete-Sevilla	0-2
Vila-real-Valentzia	3-1
Getafe-Zaragoza	3-0
R. Madril-Mallorca	3-1
Athletic-Osasuna	4-3
Betis-Numantzia	4-0

HURRENGOAK

Valentzia-Athletic
Sevilla-Bartzelona
Espanyol-Betis
Osasuna-Deportivo
Numantzia-R. Madril
Mallorca-Getafe
Racing-Levante
Reala-Vila-real
Zaragoza-Malaga
At. Madril-Albacete

SAILKAPENA

		Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.	**Bartzelona**	**48**	20	15	2	3	39	14
2.	**Real Madril**	**41**	20	13	5	2	35	15
3.	**Valentzia**	**36**	20	10	4	6	30	16
4.	**Sevilla**	**35**	20	10	5	5	23	19
5.	**Espanyol**	**34**	20	10	6	4	24	18
6.	**Betis**	**33**	20	9	5	6	28	21
7.	**Vila-real**	**31**	20	8	5	7	31	17
8.	**Athletic**	**29**	20	8	7	5	30	25
9.	**Osasuna**	**28**	20	8	8	4	30	33
10.	**Deportivo**	**27**	20	6	5	9	29	29
11.	**At. Madril**	**26**	20	7	8	5	19	19
12.	**Zaragoza**	**25**	20	7	9	4	26	32
13.	**Levante**	**24**	20	7	10	3	23	31
14.	**Getafe**	**23**	20	6	9	5	20	22
15.	**Reala**	**22**	20	6	10	4	23	26
16.	**Malaga**	**21**	20	6	11	3	15	29
17.	**Albacete**	**20**	20	5	8	8	17	25
18.	**Racing**	**20**	20	5	10	5	17	29
19.	**Mallorca**	**14**	20	3	12	5	18	35
20.	**Numantzia**	**14**	20	3	12	5	12	34

Kiniela

KINIELA

1. Athletic-Osasuna	1
2. Levante-Reala	1
3. Bartzelona-Racing	1
4. Albacete-Sevilla	2
5. Malaga-At. Madril	1
6. Getafe-Zaragoza	1
7. R. Madril-Mallorca	1
8. Betis-Numantzia	1
9. Deportivo-Espanyol	1
10. Vila-real-Valentzia	1
11. Sporting-Alaves	2
12. Racing Ferrol-Eibar	2
13. Salamanca-Pontevedra	1
14. Elche-Valladolid	1

Reala

Ideia argirik gabe, Realak ezin izan zuen Schusterren Levanterekin

Opari gehiegi egiten ditu donostiarren atzealdeak, eta lau partidu jarraian galdu ostean zuloa gertu du Realak

Jokin Etxebarria

Reala geroz eta gertuago dago putzutik. Eta ez da harritzekoa. Erasoan ez du batere ideiarik talde donostiarrak. Argi eta garbi ikusi zen hori, bi eta batekoarekin. Txuri-urdinak, Clemente entrenatzaile balego bezala, pase luzeekin eraso egiten saiatu ziren. Noski, valentziarren defentsari gauzak erraztu zizkieten.

Horri guztiorri gehitu behar zaizkio atzealdean izaten ari diren hutsak. Atezaina ez bada, defentsa da, baina kontrarioak beti irteten dira Realaren atzealdearen opariren batekin.

Gainera, zelai erdian baloiak berreskuratzea geroz eta gehiago kostatzen bada, emaitza normala da: Reala 22 punturekin eta jaitsiera postuetatik oso gertu.

PARTIDU HASIERAK

Bernabeuko gaitza deitu izan diot behin baino gehiagotan Realari partidu hasieretan gertatzen zaionari. Ez dakit zergatik den, zelaira hotz irteten direlako, lo irteten direlako edo zergatik den. Baina Realari kosta egiten zaio partiduan sartzea. Bernabeuko sei minutu haietan gertatu zitzaion. Albaceteren aurka ere berdin, eta atzokoan ezin gutxiago izan. Levanteren golak lehen zatiaren hasieran eta bigarren zatia hasi bezain laster etorri ziren. Gero, hori altxatzea ez da batere erraza; are gutxiago donostiarrak dauden egoeran.

Gainera, golari begira antzu daude txuri-urdinak. Aukeraren bat sortu bai, baina barrura sartu ezer gutxi. Hori erakusten du, behintzat, azken lau partiduetan gol bakarra egin dutela. Gol hori atzokoan egin zuen Nihatek. Egundoko gola, baina faltaz egindakoa. Normala da, erasoari begira ideiarik ez badago, ezin golik egin.

Levantek atzo ez zuen Realak baino gehiago jokatu. Baina Realak ez zuen ezer erakutsi. Emaitza: ikusleentzako partidu kaxkarra.

LEVANTE
2-1
REALA

Levante | Mora, Alexis, Pinillos, Descarga (Rubiales 45. min.), Jesule, Rivera, Juanma, Celestini, Ettien, Nacho (Camacho 80. min.) eta Congo Reggi 70. min.)

Reala | Riesgo, Ioepz Rekarte, Labaka, Garrido (Uranga 79. min.), Alkiza, Karpin, Gabilondo (Rossato 79. min.), Mikel Alonso (Larrea 79. min.), De Paula, Nihat eta Luiz Alberto.

Golak: 1-0 Nacho. 2-0 Congo. 2-1 Nihat.

Epailea: Moreno Delgado. Txartel gutxi atera zituen. Bi taldeek protestatu zituzten bere erabakiak.

Bikain

NIHAT
Turkiarrak bakarrik sortu zuen beldur apur bat Levantekoen defentsan. Gainera, Realaren urte honetako lehen gola egin zuen; egundoko gola.

Kaskar

LABAKA
Azpeitiarra ez zen fin ibili atzo. Congok min handia egin zuen, eta valentziarren bigarren golean gehiago egin behar izan zuen.

Levantek bederatzi jardunaldi zeramatzan partidurik irabazi gabe. Ez da harritzekoa. Izan ere, Congo, Ettien eta Rivera kenduta, ez dauka ezer talde valentziarrak. Baina Realak gaur egun ere ez dauka askoz gehiago. Jokalari batzuek izena bai, baina ezer gehiago ez.

Egoerari buelta ematen hasi beharko dute donostiarrek, eta horretarako zaleen laguntza jaso beharra daukate etxean. Datorren astean dute zaleek taldeari laguntzeko aukera paregabea Vila-realen aurkako partiduan.

Azken lau partiduetan gol bakarra egin du talde donostiarrak

Egoerari buelta ematen hasteko zaleen laguntza jaso beharra daukate etxean

AITOR LIZARRALDE

Mondrako Illart jokalariaren kaleratzea izan zen partiduko gakoetako bat.

Behar handien zuenak eraman zuen garaipena

BERGARA
4-2
MONDRA

Bergara | Egaña, Igarza (Berraondo 80. min.), Ormaetxea, Agirre, Lete, Maiztegi, Zubikarai, Ibañez (Cabanillas 64. min.), Garin (Zankada 77. min.), Otero eta Arana (Unai Agirre 59. min.).

Mondra | Ander, torres, Kepa (Eldin 68. min.), Merkader, Laspiur (Argider 45. min.), Ruben (Ina 80. min.), Illart, Heriz (Lopez 64. min.), Muxi, Keixi eta Asier (Bereziartua 86. min.)

Golak: 1-0 Garin. 1-1 Asier. 2-1 Arana. 3-1 Garin. 4-1 Otero. 4-2 Ina.

Epailea: Casanova jauna. Orokorrean ondo. Mondrako Illart jokalaria kaleratu zuen bi txartel hori aterata.

Jokin Etxebarria

Ez da ohikoa derbi batean sei gol ikustea. Are gutxiago, normalean bezala izaten den joko eskasarekin. Baina batzuetan gertatzen dira horrelakoak, eta zapatuan Agorrosinen horixe bera gertatu zen.

Bergara sailkapenean oso atzean sartuta dago, eta hiru puntuak behar-beharrezkoak zituen zapatuan. Baita lortu ere. Ez joko hobea erakutsi zuelako, baina ate aurrean izan zituen aukerak aprobetxatzen jakin zuen. Gainera, lan hori errazagoa izaten da Mondrak partidu erdi baino gehiago jokalari bat gutxiagorekin jokatzen badu.

ILLARTEN KALERATZEA

Hura izan zen partiduaren gakoa. Ordura arte partidu nahiko polita ikusteko aukera izan zen. Izan ere, bi taldeek gol aukera politak izan zituzten, eta baita golak egin ere. Markagailuan berdinketa zegoela etorri zen Mondrako jokalariaren kaleratzea. Bi sarrera egin zituen partidu osoan, baina bietan atera zion epaileak txartel horia, eta kalera joan behar izan zuen.

Handik aurrera Mondrak apur bat atzera etorri behar izan zuen, eta bergararrentzat errazagoa izan zen futbolean egitea. Gainera, bigarren zatiaren lehen jokaldian etxekoek gola egin zuten. Eta handik hamar minutura beste bat. Mondrakoak behera etorri ziren erabat. Jokalari bat gutxiagorekin, eta bi gol aurka zituztela ezinean ibili ziren. Beste gol bat ere egin zuten etxekoek, eta azken minutuan, emaitza apaintzeko, Mondrak bere bigarrena egin zuen.

Puntu beharrean zegoen, baina emaitza horri jarraitasun bat eman behar dio Bergarak.

• HORRELA IKUSI DUTE JOKALARIEK PARTIDUA



MAIZTEGI | BERGARA

"Hiru puntuak lortzea da garrantzitsuena"

"Ez dugu joko onik egin, baina gauden egoeran hiru puntu lortzea da garrantzitsuena. Eta hori behintzat lortu dugu. Illarten kaleratzea izan da gakoa. Bigarren zatian eurek atzera jo dute, eta guk bi gol segituan egiteko aprobetxatu dugu. Eurak orduan behera etorri dira, eta guri, jokatzea errazago egin zaigu".



LASPIUR | MONDRA

"Aurrera begira jarri beharra daukagu"

"Azken batean, ligako edozein partiduk beste balio zuten gaurko puntuek. Aurrera begira jarri beharra daukagu, eta datorren astean etxean, gaur galdutako hiru puntuak lortu. Nire ustez, partiduaren gakoa Illarten kaleratzean egon da, eta baita bigarren zatiaren lehen jokaldian eurak gola egitean ere".

Aloñak puntu bat merezi izan zuen Zubietan

EHU
1-0
ALOÑA MENDI

EHU | Ramirez, Martinez, Garcia, Zubillaga, Ugartetxea, Arambarri, Jaka (Irazustabarrena 73. min.), Zurutuza, Gomes (De Miguel), Gomez Gil (Marrokin 81. min.) (Etxeberria 88. min.) eta Txoperena.

Aloña Mendi | Jon Ander, Ferreiro (Losada 83. min.), Julen, Jagoba, Olalde, Garmendia (Aitor Lopez 52. min.), Garai, Sanchez (Albizu 52. min.), Astigarraga (Roberto 62. min.), Arregi (Iñigo 76. min.) eta Biain.

Golak: 1-0 Gomes.

Epailea: Imanol Matas. Lan txukuna egin zuen epaileak. Partiduko nondik norakoak ondo adierazi zituen.

A.G.

Ondo jokatu zuen Zubietan atzo Aloñak. Lehenengo zatia oso orekatua izan zen eta ez zen aukera garbirik egon ez batean eta ez bestean.

Bigarren zatiaren hasieran EHUk egindako gol bakarrak eman zion azkenean garaipena etxeko taldeari.

GOGOTSU, ILUSIOZ ETA INTENTSITATE HANDIAREKIN

Berdinketaren bila oñatiarrak asko saiatu ziren, baina ez ziren fin ibili aurrean azkeneko pasea emateko garaian eta golera jaurtiketa egiteko garaian. Gol batek duen garrantzia horrelako partiduetan ikusten da.

ARTXIBOA

Punturen bat lortzen gogor saiatu ziren UDAko jokalariak

Gol askoko partiduan ez zuen punturik atera UDAk

TRINTXERPE
3-2
UDA

Trintxerpe | Urrutia, Solana (Infante 89. min.), Belintxon (Irazusta 70. min.), Daniel, Montero (Eneko 79. min.), Escribano, Roberto, Rodriguez (Lasa 56. min.), Oyarzun (Berastegi 65. min.) eta Meltxor.

UDA | Aitor, Huici (Orueta 55. min.), Ibon, Iturbe, Unamuno, Oxel, Igartua, Imanol (Vadillo 82. min.), Kepa, Andoni (Juan 65. min.) eta Erik.

Golak: 1-0 Belintxon. 2-0 Rodriguez. 2-1 Erik. 3-1 Meltxor. 3-2 Juan.

A.G.

Estrategiako jokaldiek eman zizkioten Trintxerperi hiru puntuak. Lehenengo ordu erdian bi eta huts aurreratu ziren faltaz egindako bi goli esker. Erikek lehen zatia amaitu aurretik penaltiz markagailuan gerturatu zituen aretxabaletarrak.

BIGARREN ZATI GORABEHERATSUA

Berdinketa lortu nahi zuen UDAk, eta aurrera jo zuen. Penalti bat ere egon zen, baina epaileak ez zuen adierazi. Trintxerpe atzean sartuta zegoen, kontraerasoan jokatuz. Horrela heldu zen euren hirugarren gola. UDAk egindako ahalegin guztiak ezerezean laga zituen hirugarren golak, baina oraindik ere gol bila jarraitu zuten Nekaren mutilek. Hala, azkeneko minutuan Juanek faltaz partiduko azkeneko gola egin zuen. Ez zuen punturik lortzeko balio izan, baina taldearen izaera erakutsi zuen. Horrela jarraituta, berriro ere garaipenak helduko dira.

• SENIOR MAILAKO NESKAK (IGOERA FASEA)

AITOR LIZARRRALDE

BERGARA 1 - ALOÑA MENDI 1

Partidu txarra izan zen pasa den zapatuan Bergarako eta Oñatiko neskek jokatutako derbia. Eguraldia ere ez zen egokiena izan, baina joko aldetik ez zuten asmatu ez batzuek ezta besteek ere. Oñatiarrak oso gainean egon ziren partidu osoan, eta atzean sartuta; hala, bergararrek ezin izan zuten euren jokoa egin.

Eta bigarren zatian etorri ziren golak. Oñatiarrak aurreratu ziren partidua amaitzear zegoela, baina Bergarak berdinketaren gola egin zuen.

• OHOREZKO KADETEAK

Emaitzak ez du erakusten zelaian ikusi zen parekotasuna

ALOÑA MENDI
3-0
BERGARA

Ion Unamuno

Ibarrako zelaian ez zen joko politik ikusi, baina futbolean golek balio dute eta horretan oñatiarrak fin ibili ziren. Partidua 0-0 zela, bergararrek aukera bikain bat izan zuten aurretik jartzeko, baina baloia gora bota zuten. Geroago, kontraeraso batean etorri zen oñatiarren lehenengo gola: baloi luze batek Kortabarria Bolanos atezainaren aurrean bakarrik laga zuen eta hark, baloi loratu batekin, 1-0ekoa egin zuen.

Bigarren gola korner batean etorri zen, Jimenezen burukada batekin, hain zuzen ere. Hirugarren gola lehenengoaren antzerakoa izan zen. Jokoz kanpo zegoen Mikelek baloi luze bat hartu zuen eta baloi loratu batekin hirugarrena egin zuen. Bergarak izan zituen Asierren eta Plazaren hanketan gola sartzeko aukerak, baina baloia ez zen sarera sartu.

• OHOREZKO GAZTEAK

Mondrak talde hobea dela erakutsi zuen Ibarran

UDA
1-3
MONDRA

Ion Unamuno

Merezimendu osoz irabazi zuten Mondrako gazteek atzo. Zortzigarren minuturako Mondra aurreratu zen. Erikek area kanpotik gol bikaina egin zuen. Losada, Erik eta Aranbarrik ondo kontrolatu zuten zelai erdia eta UDAkoak nahiko galduta ibili ziren. Espinosa saiatu zen ezkerretik arriskua eramaten, baina Mondrako defentsa seguru egon zen.

Bigarren zatiaren hasieran Corcuerari penaltia egin zioten. Penaltia Aranbarrik jaurti zuen eta maisuki kokatu zuen baloia atezainaren ezker eskuadran. 0-2koa nahikoa ez zela eta, Losadak gol polita egin zuen. Bi jokalari atzean lagata, area barrutik egin zuen Mondraren hirugarren gola. UDAk Athleticen bide bera jarraitu nahi zuen, baina Fernandezek egin zuen golarekin bakarrik konformatu behar izan zuten.

• 2. MAILAKO GAZTEAK

Madariagaren bi golek garaipena eman zioten Antzuolari

ANTZUOLA
2-1
BERGARA

Ion Unamuno

Aukera gutxiko partidua izan zen . Hala ere, Antzuolako aurrelariaren bi golek merezitako garaipena eman zioten etxeko taldeari. Baloia denbora luzeenean Bergararen zelai erdian egon zen, hori bai, aukera garbirik ez zen ikusi. Bigarren zatian, Bergarak kontraeraso bikaina eraman zuen aurrera. Gomez de Segurak bikain pasa zion baloia Jokin Oregiri ezkerretik eta hark Mikel Oregiri, neurtutako erdiraketa batez, gola oparitu zion.

Ez zen emaitza justua. Antzuolak bere jokalari guztiak aurrera eraman zituen, eta horren eraginez eta Bergarako Caseroren kanporaketaren laguntzaz ere, bi gol egitea lortu zuen. Lehena, Unai Madariagaren falta jaurtiketa baten; eta, bigarrena, jokalari beraren jokaldi on baten ondorioz, area kanpotik jaurtitako baloi baten.

Ikusitakoak ikusita

Jasone Zabala

DERBIA ASTEBURUKO EMAITZARIK ONENA

Asteburu honetan hiru puntu besterik ez dituzte atera ibarreko taldeek. Bergara izan da hiru puntuak lortu dituen talde bakarra, sailkapenean ondoen kokatuta dagoen ibarreko taldeari, Mondrari, 4-2 irabazita, eta, puntuz puntu bada ere, badirudi gora begira hasi direla Igor Gordobilen mutilak. Aloñak ezin izan zuen ezer egin EHUren zelaian. Oñatiarrei oraindik ere gola egitea asko kostatzen zaie. Eta UDA, galdu egin zuen arren, sailkapeneko erdiko postuetan dago.

Emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **EHU**	**42**	21
2. **Tolosa**	**42**	21
3. **Ordizia**	**38**	21
4. **Zarautz**	**35**	21
5. **Pasaia**	**34**	21
6. **Touring**	**34**	21
7. **Real Union**	**30**	21
8. **Trintxerpe**	**30**	21
9. **Mondra**	**28**	21
10. **Zestoa**	**27**	21
11. **Hondarribia**	**27**	21
12. **Aretxabaleta**	**26**	21
13. **Mutriku**	**26**	21
14. **Orioko**	**26**	21
15. **Anaitasuna**	**25**	21
16. **Urola**	**23**	21
17. **Aloña Mendi**	**22**	21
18. **Bergara**	**22**	21
19. **Beti Gazte**	**19**	21
20. **Oiartzun**	**12**	21

Emaitzak

EHU-Aloña Mendi	1-0
Tolosa-Zestoa	2-0
Anaitasuna-Zarautz	0-1
Real Union-Touring	2-2
Trintxerpe-UDA	3-2
Hondarribia-Pasaia	2-2
Bergara-Mondra	4-2
Oiartzun-Beti Gazte	1-1
Mutriku-Orioko	0-1
Ordizia-Urola	0-2

Hurrengoak

Zestoa-Aloña Mendi
Zarautz-Tolosa
Touring-Anaitasuna
UDA-Real Union
Pasaia-Trintxerpe
Mondra-Hondarribia
Beti Gazte-Bergara
Orioko-Oiartzun
Urola-Mutriku
Ordizia-EHU

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **San Inazio**	**40**	18
2. **Barakaldo**	**39**	18
3. **Tolosa**	**38**	18
4. **Eibar**	**31**	18
5. **Durango**	**30**	18
6. **Aloña Mendi**	**29**	18
7. **Zugatzarte**	**27**	18
8. **Amorebieta**	**26**	18
9. **Elgoibar**	**25**	18
10. **San Martzial**	**23**	18
11. **Zalla**	**23**	18
12. **Olarizu**	**21**	18
13. **Lagun Onak**	**18**	18
14. **S.Herrera**	**15**	18
15. **Bermeo**	**12**	18
16. **Alde Zaharra**	**7**	18

Emaitzak

Lagun Onak-Tolosa	0-1
Aloña M.-Barakaldo	0-0
Olarizu-Bermeo	3-2
Elgoibar-Amorebieta	4-2
Eibar-San Martzial	1-1
Zugatzarte-Zalla	2-2
San Inazio-Durango	0-0
Sporting H-Alde Zaha.	3-0

Hurrengoak

Alde Zaharr.-Lagun Onak
Tolosa-Aloña Mendi
Barakaldo-Olarizu
Bermeo-Elgoibar
Amorebieta-Eibar
San Martzial-Zugatzarte
Zalla-San Inazio
Durango-Sportin H.

BIGARREN ERREGIONALA (KOPA)

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Lasarte Oria**	**6**	2
2. **La Salle**	**4**	2
3. **Antzuola**	**3**	1
4. **Amaroz**	**3**	2
5. **Urki**	**1**	2
6. **Zestoa**	**0**	1
7. **Donibane**	**0**	2

Emaitzak

Urki-La Salle	2-2
Zestoa-Lasarte Oria	2-3
Amaroz-Donibane	3-0
Antzuola	(Atsedena)

Hurrengoak

Urki-Zestoa
Lasarte Oria-Antzuola
La Salle-Donibane
Amaroz (Atsedena)

BESTELAKOAK

GAZTEEN OHOREZKO LIGA
Aretxabaleta-Mondra 1-3

LEHEN MAILAKO GAZTEAK
San Ignacio-Bergara 1-6
Antoniano-UDA Arizmendi 0-1
Arrasate-Ilintxa 3-4

BIGARREN MAILAKO GAZTEAK
Antzuola-Bergara 2-1

KADETEEN OHOREZKO MAILA
Aloña Mendi-Bergara 3-0
Beasain-Arrasate 5-2

LEHEN MAILAKO KADETEAK
Anaitasuna-UDA Arizmendi 1-0

BIGARREN MAILAKO KADETEAK
Urki-Bergara 1-5
Ikasberri-UDA Arizmendi 1-1
Antzuola (Atsedena)

EMAKUMEZKOEN LIGA(IGOERA)
Mondra-Tolosa 2-2
Bergara-Aloña Mendi 1-1
Almen Aretxabaleta-Luberri 1-1

EMAKUMEEN F-8 LIGA
Urki-Bergara 1-6
Elgoibar-Almen Aretxabaleta 0-4
Antzuola-Gasteiz Cup 0-7

OHOREZKO INFANTILAK
UDA Arizmendi-Anaitasuna 2-0

INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA)
Kostkas-Bergara 0-0
Aloña Mendi-Beti Ona 7-0

INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)
Arrasate-Mutriku 8-1

INFANTIL TXIKI (KOPA)
Real Union-UDA Arizmendi 4-0

INFANTIL F-8
Euskalduna-Aloña Mendi 1-2
Arizmendi B-Arizmendi C 4-3
Bergara-Urki 16-3
Antzuola-Arizmendi A 3-0

ALEBINAK
Arrasate-UDA 6-0
Aloña Mendi-Bergara 2-4

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2005eko urtarrilaren 24a

Eskola Kirola

LEINTZ IBARRA

Partidu politak ikusi genituen joan den zapatuan Musakolan, Almenen eta Ibarran

Eguraldi txarra izan zen arren, saskibaloi, areto futbol eta 8nako futbolean aritu ziren gaztetxoak

Jasone Zabala

Joan den zapatuan, goizean goiz izan ziren gaztetxoen partiduak. Musakolan, zeinek gol gehiago egin aritu ziren neska-mutilak bai areto futbolean eta baita zortzinako futbolean ere.

Partiduak ez ziren hasi zehaztuta zeuden orduetan, gaztetxoren bat edo beste berandu agertu zelako. Izan ere, zapatuetan, goizean goiz jaikitzea kosta egiten zaie batzuei.

Musakolako barruko kantxan, San Viator 6 eta Santa Teresa taldeek eman zioten hasiera jardunaldiari. Kanpoan, lokaztutako zelaian, jokatzea egokitu zitzaienei baino epelago aritu ziren, behintzat! Almenen, berriz, saskibaloi partiduak ikusi genituen; eta ederki asko jokatu zituzten 3. eta 4. mailetako gaztetxoek.

PARTIDU ASKO IZAN ZIREN

Ibarran, zortzinako futbolean makina bat partidu izan ziren, eta euria egin zuen arren, Musakolako gaztetxoak baino arropa garbiagoz heldu ziren etxera.

Gurasoen presentzia ere nabaria izan zen hiru txoko horietan, eta kirol aukera zabala izan zuten. Gozatu ere gozatu zuten gurasoek: ume batzuek saskiratzeko trebetasuna erakutsi zutelako, besteek golak egiteko abilezia...

AITOR LIZARRALDE

San Viator 6. Ane, Maitane, Eukene, Leire, Maialen, Aitziber, Maider, Irune, Lorea, Zuriñe eta Irati.

AITOR LIZARRALDE

Santa Teresa. Nerea, Maialen, Ione, Nerea, Eneritz, Deiane, Nerea, Mireia, Leire, Maitane eta Ilenia.

JASONE ZABALA

Almen. Andrea, Zuriñe, Nerea, Ainhoa San Miguel eta Ainhoa Sanz.

JASONE ZABALA

Gazteluondo 6. Itsaso, Maialen, Haizea, Maialen, Ane, Kattalin, Lidia, Izar, Nerea, Ainhoa, Maite eta Oihane.

LORENA, MADDI ETA MAIALEN | KURTZEBARRI

"Gehien gustatzen zaizkigunak dira futbola eta saskibaloia. Pozik etortzen gara kirola egitera, eta gelakideez aparte lagun asko egiten ditugu".

IANIRE ETA MAITE | KURTZEBARRI

"Guri ere futbola eta saskibaloia gustatzen zaizkigu. Zapatu goizean jaikitzea ez zaigu axola".

MARIAN, LEIRE ETA IRUNE | MESEDETAKO A.M.

"Hiruroi saskibaloia da gehien gustatzen zaigun kirola, nahiz eta gaur areto futbolean aritu garen. Barruan jokatzen ari gara, eta pozik gaude".

J. ANDER ETA BEÑAT | ARIZMENDI FERIXALEKU

"Gaur lokaztuta joango gara etxera, baina futbola asko gustatzen zaigunez pozik gabiltza".

MINERVA, YAIZA ETA MAITANE | MESEDETAKO A.M.

"Futbolean jokatzea tokatu zaigu, baina saskibaloia gustatzen zaigu gehien, nahiz eta kirol guztiak praktikatzea gustatu. Ea gol asko egiten ditugun".

IRUDITAN

Ez hozteko, jertsea janztea beharrezkoa dute umeek.

Besoak luzatzen badizkiote, baloia nori pasatuko ote dio?

Atezain on baten itxuran, geldiketa bikainak ere ikusi genituen.

Taldekideak elkarri animuak eman eta eman aritu ziren goiz osoan.

Partiduaren aurretik gorputza berotzea garrantzitsua izaten da, eta horretan aritu ziren gaztetxo horiek.

Zelaia lokatzez beteta bazegoen ere, baloiari gogor eman zioten.

UNAI, ANDONI ETA JABAR |
ARIZMENDI FERIXALEKU

“Gu ere eguraldi honekin arropak zikin-zikinak eramango ditugu etxera. Ea irabazten dugun, eta horrela behintzat pozik joango gara etxera”.

GORKA, JON ETA AITOR |
ARIZMENDI FERIXALEKU

“Gure artean lagunak gara, eta pozik aritzen gara futbolean. Gaur, eguraldia ez da batere ona, baina ea Arizmendiko beste talde horri irabazten diogun”.

ALICIA ETA MARIA |
MESEDETAKO A.M.

“Saskibaloia dugu gustukoen, eta larunbat goizean goiz jaikitzea ez zaigu kostatzen”.

DAVID, ALEX ETA CRISTIAN |
MESEDETAKO A.M.

“Guri saskibaloia eta futbola gustatzen zaizkigu. Normalean, gelakideak aritzen gara, baina lagunak ere egiten ditugu. Gaur futbolean aritu gara eta zikin-zikin amaitu dugu”.

• LEHENENGO MAILA NAZIONALA

Partidu zoragarria amesgaizto bihurtu zen

Sei goleko errenta minutu askoan izan ostean, azkenean bi puntuek alde egin zuten

AITOR LIZARRALDE

Unai Perosterenak bederatzi gol egin zituen, baina bukaeran Presumido atezainak urduri jarri zuen.

ARRIKRUTZ OÑATI
23-24
IBERIA CORAZONISTAS

Arrikrutz | Biain, Joseba (3), Zelai (1), Jose Manuel, Rafael (1), Giraldo, Elgarresta, Gari (3), Perosterena (9), Zurutuza, Eneko (6), Korkostegi eta Erik.

Corazonistas | Presumido, Sanchez (1), Guillermo (3), Bonsons (1), Crespo, Lamoz (2), Revilla (11), Sirvent, Galvez (3), Gañarul, Almuzara, Montero (3) eta Eduardo.

Golak bost minuturo: 4-2; 5-2; 6-3; 8-4; 12-7; 15-9; 16-13; 19-14; 20-16; 21-18; 22-20; 23-24.

Ion Unamuno

Amesgaiztotik esnatzea kosta egingo zaie oñatiarrei. Partiduaren nondik norakoa ikusita, bi puntuek Zaragozara alde egiteak fantasia hutsa zirudien, baina besoak ezin daitezke altxa azken marra zapaldu arte. Horrela, azken bost minutuetan partiduari buelta eman zioten aragoiarrek. Indarrak bukatu zirela, kontzentrazioa falta izan zela, kanpoko taldeak jokalari onak zituela eta beste hainbat arrazoi eman daitezke partidua zergatik galdu zen azaltzeko. Hala ere, ez da hain erraza. Azkeneko minutuetan Zubikoan ikusi zena gorputza hozteko modukoa da.

Bikain hasi ziren oñatiarrak eta hasieratik markagailuan aurrean jarri ziren. Atsedenaldira sei goleko aldearekin joan ziren. Eta bigarren zatiaren hasiera eskasa izan zen arren, berriro sei goleko aldearekin jarri ziren. Baina orduan hasi zen gainbehera. Lau goleko aldea, hiru golekoa, bi golekoa, gol bakarrekoa, berdinketa, eta amaitzeko, 23-24 galdu. Bi puntuek nola alde egin zuten ikusita, oñatiarrek kolpe gogorra jaso zuten, baina goiari eutsi behar zaio.

REVILLA ETA PRESUMIDO

Horiek izan ziren Corazonistas taldearen armarik eraginkorrenak. Lehenengoa, egin zituen 11 golengatik; eta bigarrena, Unairi gelditu zizkion bi penaltiengatik. Txakur zaharra dela erakutsi zuen.

• BIGARREN TERRITORIALA

AITOR LIZARRALDE

AGR ARRASATE 28 - HEGIALDE AUTO 19

Erraz irabazi zion AGR Arrasatek azken sailkatuari atzo. Baina bigarren zatian gauzatu zen garaipena. Izan ere, lehenengo zatia nahiko parekatua izan zen. Gainera, gol gutxi ikusi ziren zati hartan, bi taldeek oso defentsa gogorrarekin jokatu zuten eta. Bigarren zatian, baina, etxekoek nagusitasuna erakutsi zuten. Defentsan egindako lan onari atezainek egindako lan bikaina gehitu behar zaio, eta hori guztiori erasoan golak sartzen utzi gabe. Azkenean, bada, erraz irabazi zuten arrasatearrek.

• BIGARREN TERRITORIALA

AITOR LIZARRALDE

BERGARA 17 - ALOÑA 24

Derbia Oñati aldera joan zen domekan. Partidu gogorra eta intentsitate handikoa jokatu zuten hasieratik. Etxeko taldeak lehen zatian eraman zuen partiduaren kontrola, eta denbora osoan aurretik joan zen. Bigarren zatian, Aloña presioa egiten hasi zen, eta bergararrak urduri jarri ziren. Aloñak bere lanean jarraitu zuen, eta zelaiko hiru jokalarirekin ere aldeari eutsi zion. Etxekoak hiruren aurka ezinean aritu ziren, intentsitate barik, eta azkenean oñatiarrak garaile atera ziren.

• EUSKADIKO TXAPELKETA

Bergarak ezin izan zuen Urdulizen irabazi

URDULIZ
39-29
BERGARA

A.G.

Bergarak Urduliz talde bizkaitarrari egin zion bisita joan den zapatuan.

Aurkaria gogorra zen, eta etxeko partiduan galdu ondoren, zerbait positiboa ekartzea zen helburua.

Hasiera ona izan zuten bergararrek, eta nahiz eta etxekoek markagailuan alde txiki bat lortu, bai defentsan eta baita erasoan ere ondo aritu ziren Landerren mutilak.

Azkenean, hamar goleko aldeagatik galdu zuten bergararrek.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILAKO ESPAINIAKO LIGA

Arrikrutz Oñati-Corazonistas	23-24

SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA

Urduliz-Bergara	39-29

LEHEN TERRITORIALA

AGR Arrasate-Hegialde	28-19

BIGARREN TERRITORIALA

Haritza-Arrasate	18-22
Bergara-Aloña Mendi	17-24

SENIOR MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-Galdakao	23-19

GAZTE MAILAKO MUTILAK

Gatz Museoa Jakion-Zarautz	22-20

GAZTE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-San Adrian	16-20

GAZTE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Leizaran-Arrasate	1-27
Ereintza-Bergara	19-20

KADETE MAILAKO MUTILAK

Hondarribi-Aloña Mendi	31-22
Bergara-Urola	23-13

KADETE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-San Adrian	16-24

INFANTIL MUTILAK

Arrasate-Arrate	14-29
Aloña Mendi-Bidasoa Irun	25-29

INFANTIL NESKAK

Aloña Mendi	Atsedena

• LEHEN MAILA

Egundoko errepasoa Getxori

Partidu osoan aurretik joan ziren arrasatearrak, erasoan egindako joko onari eta defentsan egindako lan txukunari esker

MUGARRI ALKESA
93-74
GETXO

Mugarri Alkesa | Gamarra (16), Mallabiabarrena (18), Mikel Biain, Herzog, Kintana (26), Ancin, Alarcia (15), Aranburu, Iñigo Biain (18), Isasa eta Domingo.

Getxo | Vela, (4), Neira (9), Illanes, Vega (31), Zarraga (14), Unibaso, Arenas, Salinas (11), Olabarri, Arrizabalaga (5) eta Garcia.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 19-25. Bigarren laurdena 44-36. Hirugarren laurdena 70-50. Laugarren laurdena 93-74.

Jokin Etxebarria

Azken partiduak erraz irabazi ditu Mugarri Alkesak. Badirudi, joan den urtean bezala, bigarren itzulirako makinak koipeztatu dituztela. Ez zirudien partidu zaila zapatukoak, kontuan hartuta etxekoak azken partidua alde handiarekin irabazita zetozela eta getxotarrak, aldiz, azken partiduak galduta zituztela. Ez zirudien zaila eta ez zen zaila izan. Hasieratik nagusi izan ziren arrasatearrak. Kanpoko jokoan ondo ibili ziren eta barruko jokalariek ere lan txukuna egin zuten. Gainera, Alarcia, joko antolatzailea, korrika hasten zenean min handia egiten zuten arrasatearrek.

Getxon 14 puntugatik galdu zuten Zurututzaren mutilek, eta zapatuan, partidua irabazteaz gain, 14 puntu edo gehiagoko diferentzia lortzea zuten helburu, eta baita lortu ere.

BALOIA ONDO MUGITU ZUTEN

Defentsan nahiko ondo ibili ziren etxekoak. Ez zen lan zailegia izan getxotarrak defenditzea. Izan ere, kanpoko jaurtiketen bidez bakarrik erasotzen zuten. Euren pibotak min handia egin zuen, gainera, jokaldi horrekin. Garaia izateaz gain jaurtitzaile ona da, eta etxekoek arazo bakarra harekin izan zuten.

Getxotarrek ez bezala, erasoan ondo mugitu zuten baloia mondragoetarrek. Kanpotik Kintanak eta Jagobak egun ona izan zuten, batez ere lehenak. Eta barrura sartzen zituzten baloietan Mallabiabarrenak eta Iñigo Biainek min handia egin zuten. Taula azpian nagusi zein zen ederki erakutsi zuten zapatuko partiduan Arrasateko taldeko bi pibotek.

Laugarren laurdenaren hasiera, berriz, oso bestelakoa izan zen. Izan ere, kanpokoak oso gogor irten ziren kantxara. Eta etxekoek kanpoko jaurtiketen bitartez konpondu nahi izan zuten atzean egindako hutsak.

Hala ere, bukaerarako jokoa lasaitzen jakin zuten, partiduaren erritmoa eurek jarri, eta gutxika-gutxika diferentzia handitzen joan ziren; hala, 19 puntuko aldearekin irabazi zuen Mugarri Alkesak.

AITOR LIZARRALDE

Kintanak partidu oso ona jokatu zuen Getxoren kontra.

• 2. NAZIONALA

Larri izan bazen ere, irabazi egin zuten eskoriatzarrek

STAVE ASSOCIATES
61-62
ESKORIATZA

A.G.

Oso garaipen garrantzitsua lortu zuten zapatuan eskoriatzarrek Ozkabarten (Santo Domingo de la Calzada).

Partidua berdindurik joan zen lehenengo hiru laurdenetan, nahiz eta etxekoak aurretik izan ziren markagailuan. Saskiratze asko egin zituzten, batez ere hiruko jaurtiketak. Lehen hiru laurdenetan bost egin zizkieten eskoriatzarrei.

Azken laurdenean, zelai guztian presioa egin zuten Fernando Rasoren neskek, eta markagailuan aurretik jartzea lortu zuten. Kanpoko jaurtiketetan ere asmatu egin zuten azken laurdenean, eta horrek alde txiki bat eman zien. Epailearen lana ez zen batere ona izan, eta haren eskuetan egon zen guztia egin zuen etxekoen alde behin eta berriz eginez. Horren lekuko, eskoriatzarrei adierazitako lau falta teknikoak. Baina eskoriatzarrek ez zuten burua makurtu, eta azkeneraino egin zuten borroka. Hala, puntu bategatik izan bazen ere, irabazi egin zuten. Gauzak horrela, sailkapenari begira arnas pixka bat hartu dute.

Oñatiarrek ezin beasaindarrekin

ALOÑA MENDI
43-59
BKL-CAF

Aloña Mendi | Mugarza, Sanchez (5), Cruickshank (15), Zabarte, Izurrategi (5), Orueta, Casado (2), Blanco (4), Lete (2) eta Urkia (10).

BKL-CAF | Sokoetxea (5), Esnaola, Iturbe (13), Lakunza (21), Corbacho (11), Ormazabal (4), Huici (4), Canales, Toribio eta Etxebarria (1).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 11-8. Bigarren laurdena 19-24. Hirugarren laurdena 28-39. Laugarren laurdena 43-59.

Jokin Etxebarria

Hasiera ikusita ez zuen ematen gauzak horren gaizki irtengo zitzaizkienik Aloña Mendiko kadeteei. Izan ere, lehen laurdenean nagusi izan ziren etxekoak. Hala ere, puntu gutxira ibili ziren beasaindarrak.

Bigarren laurdenean, etxekoak lo irten ziren kantxara. Erasoan galduta, ideiarik gabe, eta baloi asko galduta. Hala, Beasaingoek etekina atera zioten egoerari, eta baloia zuenari presio handia eginez baloi asko lapurtu zituzten eta kontraerasoan min egin zuten. Azkenerako alde polita lortu zuten, gainera. Handik aurrera nahiko lasai ibili ziren kanpokoak. Nahiz eta hirugarren laurdenaren hasieran etxekoek norgehiagoka berdintzea lortu zuten, kanpokoen joko antolatzailea esnatzearekin batera aldea hartzen joan ziren beasaindarrak.

Laugarren laurdenean ere etxekoak ezinean ibili ziren. Presioa egin zuten, baina kanpokoek saskiratzen jarraitzen zuten, eta azkenean garaipenak etxetik alde egin zuen.

AITOR LIZARRALDE

Beasaindarrek defentsa estutu eta baloi asko lapurtu zituzten.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA

Mugarri Alkesa-Getxo	93-74

SENIOR MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

S.T.L-Aloña Mendi	60-53
Easo-Bergara	67-46

GAZTE MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Atco. S.S-Mugarri Alkesa	55-63
Aloña Mendi-Tolosa	31-90
BKL/CAF-Araneta	49-83

KADETE MAILA

Lacor	Atsedena
Aloña Mendi-BKL/CAF	43-59
Mugarri Alkesa-Goierri	66-43

NESKEN BIGARREN MAILA

Stave Associates-Eskoriatza	61-62

GAZTE NESKAK

Indulita-Aloña Mendi	59-32
Eskoriatza-Internacional	20-26

KADETE NESKAK

Bergara-BKL/CAF	51-8
Atco. S. S.-Eskoriatza	64-15

Pilota

• EUSKADIKO TXAPELKETA

Erraz irabazi zion Lazkanok Casadori: 22-12

Hurrengo bi partiduak ere irabazi behar ditu Euskadiko Txapelketako finalerdietan egoteko

Jokin Etxebarria



AITOR LIZARRALDE

Sakearekin min handia egin zuen Lazkanok.

Aurreko bi jardunaldietan gutxigatik bada ere galdu eta gero, derrigortuta zegoen Lazkano arrasatearra egubakoitzeko partidua irabaztera, Euskadiko Txapelketako finalerdietara heltzea du-eta helburu. Bere taldean lehen biak bakarrik sailkatzen dira, eta gutxienez hiru partidu irabazi behar ditu jokatuko dituen bost partiduetatik. Beharra dagoenean, askotan gauzak ondo irteten dira, eta partidu hartan ere hala irten ziren.

Hasiera-hasieratik etxekoaren nagusitasuna garbi geratu zen. Piloteoan nagusitu egin zitzaion Lazkano Casado gasteiztarrari eta sakearekin ere min egin zion. Nahiz eta tanto askorik ez egin jokaldi horrekin, errestoak ama-ama uzten zizkion gasteiztarrak. Gainera, tantoak erraz bukatu zituen arrasatearrak. 14 tantoko aldearekin ere ibili zen Arrasate pilota taldekoa. Santa Lucia taldekoak egin zituen tanto gehienak etxekoak egindako hutsetatik etorri ziren. Eta ahalegindu bazen ere, ezin izan zuen arrasatearrarekin. Etxekoak pilota ondo gozatu zuen, eta erraz jokatu zuen. Garaipen garrantzitsua egubakoitzekoa, baina derrigor irabazi beharko ditu hurrengo bi partiduak: datorren astean Gernikan eta hurrengoan, Uarkapen.

• ERRUGBIA

ATCO. SAN SEBASTIAN INDARTSUAREN AURKA EZIN EZER EGIN: 5-73

AITOR LIZARRALDE

Aurkari gogorregia izan zen Atletico San Sebastian taldea arrasatearrentzat. Sailkapenean hiru lehenengoen artean dagoen taldea da donostiarra, eta jende gogorra edukitzeaz gain, teknikoki oso onak diren jokalariak dira. Horri gehitu behar zaio Arrasate errugbi taldea 11 bajarekin dagoela, eta jokatu zutenek ezin izan zuten ezer egin talde donostiarraren jokalari argentinar eta frantsesen kontra.

Arrasatearrek garbi dute zapatukoa bezalako aurkarien aurka dibertitzera irten behar dutela, eta horrela egin zuten. Arrasatekoen buruan momentu honetan dagoen gauza bakarra da Zarauzko taldeari irabaztea Garagartzan, horrela mailari eutsiko diote-eta.

Pertika jausia



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Jonathan Perez, Iturripen egindako entrenamendu batean.

Jonathan Perezek min hartu zuen Valentzian

Asteleheneko Goienkaria

Ez du zorte handirik azkenaldian pertikalari arrasatearrak. Izan ere, nahiz eta aurreko astean Euskadiko txapeldun geratu zen, ez zuen Espainiako Txapelketara joan ahal izateko behar duen marka egin. Eta asteburu honetan zuen beste aukera bat. Baina 4'50 metro saltatzera zihoala min hartu zuen orkatilan, eta hurrengo altuera ezin izan zuen salto egin.

Datorren astean Donostian izango du beste aukera bat behar dituen 4'95 metroak salto egiteko. Ordurako orkatila errekuperatzeko esperantzak baditu ere, Jonathanek ez daki lortuko duen. Oraindik hilabete geratzen da Espainiako Txapelketarako, eta datorren astean marka lortuko ez balu oraindik badauka aukerarik beste txapelketa batean ateratzeko. Lortuko ez balu, rankineko postuei itxaroten gelditu beharko luke.

Areto Futbola

Garaipen erraza lortu zuten eskoriatzarrek Elorrioren aurka

A.G.

Joan den egubakoitzean partidu erraza izan zuten eskoriatzarrek. Aurkaria Elorrio zen, eta lanak nahiko erraz ipini zizkion etxeko taldeari.

Lehen zatia parekatua izan zen, baina etxekoen golak azkar etortzen hasi ziren, eta lehen zatia 4-1eko emaitzaz amaitu zuten. Bigarren zatian, golak bata bestearen atzetik etorri ziren, eta 8. minuturako, 10-2 irabazten ari ziren etxekoak.

KONFIANTZA HANDIEGIA

Azken minutuetan, etxekoek, zuten aldea ikusita, lasaitu egin ziren, eta bizkaitarrak markagailua apaindu zuten. Azkenean, 11-6 Eskoriatzaren alde.

Labur

Jardunaldi positiboa izan zuten Arrasateko xake elkartekoek

Joan den asteburuan, Arrasateko xake taldeak Gros xake taldearen bisita izan zuen. Donostiarrak talde indartsua dira, eta azken lehiaketak irabazi dituzte. Beraz, izandako lau partidetatik punturen bat ateratzea zaila izan arren, arrasatearrek puntu erdi lortu zuten jokatutako lauretatik. Aurkaria zein zen kontuan izanda, emaitza positibotzat har daiteke. Bestalde, Aretxabaletako taldeak ere oso emaitza ona lortu zuen asteburuan.

Unai Perez de Arenaza bergararrak Euskal Mendizale Federazioak ematen duen Andres Espinosa saria jaso berri du, urteko alpinismo jarduera onenari saria, hain zuzen. Shisha Pangman irekitako bide berriagatik jaso du saria, baina Unairen ustez Euskal Herrian badago berak baino gehiago sari hori merezi duenik.

Eskalatzaile bergararra 7 urte dela joan zen Lleidara bizi izatera, "Pirinioak gertuago izateko", baina hurrengo proiekturako ere Himalaiara joango da: Baghiratira.

UNAI PEREZ DE ARENAZA | EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN ANDRES ESPINOSA SARIA EMAN DIOTE

"Sari hau nik baino gehiago merezi duen jendea bada Euskal Herrian"



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Mendiak igotzea bakarrik ez, eskalatzea ere oso gustuko du Unai Perez de Arenazak.

Jokin Etxebarria

Euskal Mendizale Federazioaren Andres Espinosa saria jaso berri duzu; pozik, ezta?

Bai, egia esan, bai.

Ez da makala urteko alpinismo jarduera onenari saria ematea, ez?

Ez, ez da makala. Azkenean, bateren bati eman behar diote saria, baina nire ustez, Euskal Herrian alpinismoak oso osasun ona dauka, eta ez dakit nire lana onena izan den. Badago nik baino gehiago merezi duen jendea Euskal Herrian, baina pozik nago saria jaso dudalako.

Bide berria ireki zenuen Oriol Varorekin batera Shisha Pangman. Zaila izan zen?

Bidea irekitzea ez zen zailegia izan. Bidea ez da oso teknikoa, baina lan horri altuera gehitzen badiogu, eta kontuan hartzen bada bidea guztiz berria dela, azkenerako zailtasunak batzen zoaz, eta neketsua egiten da. Beraz, neurrizko zailtasuna daukala esango nuke.

Eta nolatan bururatu zitzaizuen bide berri bat irekitzea?

Gauza horiek poliki-poliki irteten dira. Ezagunek, lagunek, gauzak esaten dituzte, eta gutxika-gutxika berotzen joaten zara, eta azkenean erabaki genuen mugitzea. Dirua lortzen baldin bagenuen, espedizio bat egingo genuen.

Azkenean guretzat zailena dirua lortzea izaten da. Ziur nago edozein euskalduni horrelako dirulaguntza bat emanda, edozein astakeria egiteko kapaza izango litzatekeela.

Baina ez da erraza horrelako espedizio bat antolatzea.

Ez, ez da erraza. Gainera, guk ez dugu balio horretarako. Guk mendiak igo eta eskalatzeko balio dugu. Guretzako oso zaila egiten da udaletxe batera joan edo enpresa pribatu batera joan, proiektua aurkeztu eta dirua eskatzea. Aurpegia ematea beti izaten da zailena. Gero, gainera, eurei ere interesgarria iruditu behar zaie, bestela jai dago.

Vall de Boi izena eman diozue bide berri horri; zergatik?

Vall de Boi Katalunian dagoen bailara bat da, eta Oriol Varo bertakoa da. Bailara hartako udala izan zen proiektua aurkeztu genuen lekuetako bat. Alkatearekin berriketan, ideia ona iruditu zitzaion laguntza bat ematea, bide berriari bailarako izena jartzeko kondizioarekin. Esan eta egin. Guretzako ondo, eta eurendako ere bai, eurengandik jaso dugulako laguntza.

Lleidan bizi zara aspalditik. Nolatan joan zinen hara, Pirinioak hurbilago edukitzeko?

Bai, arrazoietako bat hori izan daiteke. Azkenean, lagun batzuk ere etortzekoak ziren, Bergaratik irteteko gogoa ere baneukan, beste gauza batzuk ikusteko, eta mendia ere gertu daukat. Dena koktel-ontzi batetan sartu eta azkenean etortzea erabaki nuen.

Baina Euskal Herritik zerbait igarriko duzu faltan, ez?

Bai, noski, familia, lagunak... Eta bertan dauden mendi zati txiki horiek ere faltan sumatzen ditut. Hori da txarrena, mendi zati txikiegiak direla.

Juanito Oiartzabalek bezala, 14 zortzi milako egiteko prest?

Ez. Hori sekulako astakeria dela uste dut. Nik txikitako amets bat bete dut: zortzi milako batean egotea. Baina etorkizuneko proiektuetan ez dago beste horrelako mendirik. Nahiago ditut sei milakoak, mendi horietara besteetan dagoen masifikazioa ez da heldu eta.

"Bide berriari bailararen izena jartzeko kondizioarekin jaso genuen Vall de Boiko laguntza"

"Bergarako izena munduan zehar zabaldu nahi nuke"

Ez da abentura horrekin bakarrik geldituko bergararra. Hurrengo espedizioa ere gertu dauka dagoeneko Unai Perez de Arenazak. Berriz ere Himalaiara joango dira, baina ez zortzi milako batera, baizik eta 6.500 metro dituen Baghiratira. Arenazarekin batera Unai Beitia eskalatzaile bergararra eta hiru kataluniar joango dira. Bergarako Udalean proiektua aurkezteko asmoa dute. "Izan ere, Kataluniako udal horren izena zabaldu dugu, baina nahiko nuke Bergarako izena ere munduan zehar zabaldu". Baghirati nahiz eta 8.000 metro ez dituen teknikoki zailagoa da, eta euren asmoa da bertan dagoen bidea jarraitzeaz gain, 5.000 metro ingurura beste bide bat zabaltzea.

KULTURA

Aisialdia eta Zerbitzuak

• Loic Mallie organo-jotzaileak inprobisazio emanaldi borobila egin zuen zapatuan Bergaran | 24
• Bergarako Udal Musika Bandak denboraldiko lehen kontzertua egin zuen domekan | 24

Jokin Zaitegi literatura sariketa hutsik lagatzea erabaki du epaimahaiak | 26

POESIA, MUSIKA ETA DANTZA EMANALDIA



AITOR LIZARRALDE

Irakurketa poetikoa, musika eta dantza garaikidearekin jantzi zuten bi idazleek Oñatiko emanaldia. Oñatiko emanaldiaren ondotik Tolosan eta Donostian izango da hirukotea.

OÑATI | OLERKI LIBURU BANA AURKEZTU ZUTEN JENDAURREAN ANDONI SALAMEROK ETA JOSI LABAJOSEK

Poesia, musika eta dantza, diziplina bakar bat balira bezala moldatuta

Poema liburu bana argitaratu dute Andoni Salamerok eta Josi Labajosek. Auto-edizioaren apustua egin dute eta argitalpenak zabaltzeko ikuskizun abangoardista prestatu dute

Larraitz Zeberio

Poema liburu bana argitaratu dute Andoni Salamerok eta Josi Labajosek. *Zu. Ni. Bi. Bidean* lehenak eta *Por tierra de nadie* bigarrenak.

Auto-edizioaren aldeko apustua egin dute bi zumarragarrek. Aldi berean, liburuak ezagutzera emateko poesia irakurketa emanaldi abangoardista eta berritzailea landu dute.

Abenduan Zumarragan izan ziren eta barikuan, berriz, Oñatin. Eta Andoni Salameroren lankide, ikasle eta guraso asko bildu zen Santa Anan, izan ere, Oñatin irakasle da. Euskara irakaslea poema irakurketan ikustea esperientzia berria izan zen guztiendako.

DANTZA, MUSIKA ETA OLERKIAK

Ordubeteko poesia irakurketa entzun genuen Oñatin. Ez zitzaigun astuna egin. Etenik gabeko saioa izan zen eta oso girotze lan sendoarekin.

Poesia, musika eta dantza oso ezberdinak diren hiru diziplina dira, baina hiru artistek asmatu egin dute hirurak ikuskizun batean uztartzen. Dantzariaren mugimendu sentsualak, rapsodaren adierazkortasunak eta musikariaren ekarpen melodikoek girotze lan bateratua izan zuten emaitza.

"Auto-edizioaren aldeko apustua oso esperientzia gogorra da, baina errepikatzeko modukoa", adierazi zuen Andoni Salamerok. "Emanaldi hau herriz herri eskaintzea da gure asmoa", gaineratu zuen Josi Labajosek. "Orain arte Tolosa eta Donostiako Koldo Mitxelena lotuta ditugu, baina leku gehiagotara iritsi nahiko genuke".

> Ordubeteko emanaldia izan zen, etenik gabekoa eta ondo girotutakoa
>
> Laster Tolosa eta Donostian aurkeztuko dute euren lana

Emanaldiaren gainean galdetu genienean, "beti dago zer hobeturik baina gustura gelditu gara gaurko saioarekin" erantzun zuen Labajosek. "Gure helburu bakarra gustatzen zaiguna egitea da eta, bide batez, gure liburuak ezagutzera ematea".

Maitasuna, natura, heriotza, desirak... Olerkiak norberak irakurtzeaz gain, halako emanaldiek belarrietatik jasotzeko aukera ematen dute.

Berrogei lagun inguru elkartu zen Santa Anan. Lagun arteko hitzordua izan zen. Gehienek Andoni Salamero ezagutzen zuten. Eta eszenatoki gainean ikastetxean bezala ei da.

POESIA, MUSIKA ETA DANTZA EMANALDIA

• POESIA, DANTZA ETA MUSIKA IKUSKIZUNEKO PROTAGONISTAK

ANDONI SALAMERO. Oñatiko Aozaraza ikastetxeko irakasleak emanaldiko poesia irakurketa hartu zuen bere gain. Txandaka, Josi Labajosen *Por tierra de nadie* liburuko olerkiak eta *Zu. Ni. Bi. Bidean* bere liburuko poemak irakurri zituen. Ahots xuxurlatzailearekin sentimenduen unibertso korapilotsura eraman gintuen.

JOSI LABAJOS. Zumarragakoa eta Andoniren laguna, *Por tierra de nadie* poesia liburuaren egile Josi Labajosek musika moldaketak egin ditu ikuskizun honetarako. Gitarra, pianoa eta armonika jo zituen emanaldian. Oso txukun egindako girotze musikala entzun genuen Santa Anan.

ANE REMIRO. Poesia irakurketa atontzeko dantza garaikidea ere ikusi genuen eszenatoki gainean. Ane Remiro hernaniarrak eman zion mugimendua ikuskizunari. Oinutsik eta gazazko jantzi bat soinean, Anek erritmoa eman zion emanaldiari. Ukiezina den ametsen errealitatea bere mugimendu sentsualen bitartez hurbildu zigun.

IKASLEAK KAZETARI LANETAN. Emanaldia amaitu bezain laster Andoni, Josi eta Anek Oñatiko Aozaraza ikastetxeko kazetari gaien galderei erantzun behar izan zieten. Bideo grabazioa eta txandakako elkarrizketak egin zizkieten kazetari gazte horiek. Hiru artisten adierazpenak ikastetxeko *Xe XanNk* aldizkarian jasoko dira.

• GUSTATU ZAIZU IKUSKIZUNA ?

ILU ETA NEKANE |
OÑATI

"Ikuskizuna espero baino gehiago gustatu zait", dio Nekanek. "Andoni Salamero nire irakaslea da, eta haren liburuaren aurkezpen ekitaldira etorri naiz. Poesia ez zait askorik gustatzen, baina gaurkoan ez zait beti bezain astuna egin. Andoniren irakurketa oso adierazkorra iruditu zait. Normalean ere halakoa da hura".



BEATRIZ, AITOR ETA MARTIN |
OÑATI, BERGARA ETA OÑATI

"Zer esango dugu ba? Gu Andoniren lankideak gara! Olerkiak ezagutzen genituen, baina ez geneukan ideiarik ere ikuskizuna nolakoa izango zen. Andoni bere saltsan ikusi dugu. Oso trebe eszenatoki gainean. Kalean eta lanean horrelakoa da. Sentimendua alde guztietatik. Goizetan ikastetxera iristen denean gutxitan esango du 'Egun on'. Bere olerki liburua ekarriko du esku artean eta tximeletari buruzko pasarte bat irakurriko digu. Ikuskizuna polita izan da. Gustatu zaigu".



OLATZ ETA ANDER |
OÑATI

"Andoni irakaslea dugu, eta haren poesia liburuaren aurkezpen ekitaldira etorri gara. Polita izan da ikuskizuna, polita eta desberdina. Sentimendu handia jarri du eszenatoki gainean. Keinuekin-eta adierazkortasun handia eman dio bere irakurketari. Dantzaria eta musikaria ere oso ondo aritu dira".

Bandaren urteko lehen kontzertuan pasodobleak eta 'western' doinuak

Atzoko (domeka) kontzertuan Bergarako Udal Musika Bandak urte osoko egutegia banatu zuen entzuleen artean

Larraitz Zeberio

Atzo, domeka, Bergarako Udal Musika Bandak ehun bat lagun elkartu zituen frontoian 2005. urteko lehen kontzerturako.

Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariaren esanetara bandako 71 musikariek bost pieza jo zituzten. Emanaldiari hasiera emateko pasodoblea aukeratu zuten bergararrek; hala, M. Gonzalez Bastidaren *Campos de rosas* izeneko obra eskaini zuten. Jarraian *western* kutsua hartu zuen kontzertuak, eta F. Von Suppe musikariaren *Caballeria ligera* oberturaren txanda etorri zen.

Horren ondoren, J. Hadermann eta J. de Haanen *Rendez vous* eta *Oregon* etorri ziren. Bata, melodia erromantikoa. Bestea, *western*-etako oroitzapenak ekartzen dituena. Irudimen handia erakutsi zuten bandako musikariek doinuen bitartez *western*-etako hainbat doinu irudikatzerakoan.

EGUTEGI BERRIA

Domekako kontzertua 2005. urteko lehenengoa izanik, sarreran ikus-entzule guztiek udal bandaren urteko egutegia jaso zuten opari.

Herrian hamabi emanaldi ditu iragarrita 2005erako Bergarako Udal Musika Bandak. Hilean bat —abuztuan izan ezik— eta Pazkoetan eta San Martin jaietan bi emanaldi eskainiko dituela kontuan hartuta.

Bandaren hurrengo emanaldia Inauterietako kontzertua izango da, otsailaren 4an.

LARRAITZ ZEBERIO

Otsailaren 4an egingo du bandak hurrengo kontzertua, Inauterietan.

ORGANO KONTZERTUA I **ORGANO ERROMANTIKOAREN NAZIOARTEKO VI. ZIKLOA**

San Pedroko organoaren barrenak astindu zituen Malliek, inprobisazioaren maisuak

Non. Bergarako San Pedro parrokian
Zenbat jende. 100 bat lagun.
Iraupena. Ordu eta erdi luze.

Marijo Deogracias

Organo erromantikoaren bigarren emanaldia izan zen zapatukoa. Bat-batekotasunaren emanaldia izan zen, eta, horretarako, inprobisazioan maisua den Loic Mallie, maisu frantziarra, gonbidatu zuten Bergarako San Pedro elizako organo erromantikoa jotzera. Partitura barik jardun zuen Malliek eta entzule guzti-guztiak aho zabalik laga zituen.

Koruan atondu zituzten aulkiak, XIX. mendeko organoaren aurrealdean. Mallieren burumugimenduak baino ez genituen ikusten, baina nahiko izan zen bere trebetasunaz gozatzeko. Grignyren *Ave Maris Stella* piezarekin hasi zuen emanaldia; lau bertsio egin zituen, zein baino zein hobea: azkenengoa sendoa, indartsua eta apur bat tragikoa.

EUSKAL DOINUAK INPROBISATZEN

Itsasoa laino dago kantaren konpas ezagunenak eman zizkioten Mallieri, eta inprobisazio bikaina egin zuen organo-jotzaileak. Harrigarriagoa izan zen, ordea, San Pedro elizaren erlojuak jotzen duen doinuarekin egin zuen bertsioa. Organoak ematen dituen tonu eta soinu guztiak ez bada, ia guztiak atera zizkion Malliek, eta, txirula hotsa balitz bezala, akuario baten ur-soinuak entzunarazi zizkigun.

> San Pedroko erlojuaren bertsio dibertigarria sortu zuen Malliek bat-batean

Amaieran, eta organoaren ondoan zutik jasotako txaloengatik eskerrak eman ostean, gustura zegoela-eta bisa egin nahi izan zuen maisu handiak. *La Flauta* pieza jo zuen, eta aurreko doinuarekin antzekotasuna bazuela erakutsi. Saio bikaina izan zen; inprobisazio bakoitzaren osteko txaloek ere hala adierazi zuten.

Zapatuan Jürgen Wolf organo-jotzaile alemaniarraren txanda izango da organo erromantikoaren nazioarteko VI. zikloan.

Elkartearen urteurrenean egingo da flamenko jaialdiaren kanporaketa, zapatuan

Marijo Deogracias

Sei *kantaore* zeuden iragarrita zapatuan jokatzekoa zen flamenko jaialdiaren bigarren kanporaketarako. Baina, arazo pertsonalak izan zirela tarteko, Toli de Linares datorren zapatuan arituko da, hirugarren kanporaketan. Osterantzean, oso ondo aritu ziren lehiakideak, nor bere estiloan, eta elkartean egon zirenek —100 bat lagun— primeran gozatu zuten. Aipagarria da Malagatik etorritako Isabel Rico; bikain aritu zen hura.

Datorren zapatuan, sei lagun arituko dira lehian; Toli de Linares, Paco Guerrero eta Sebastian Fraide, besteak beste. Jaialdiaren amaieran erabakiko dute epaimahaikoek finalerako sailkatuko diren bost *kantaoreen* izenak. Finalerako esku-orriak aterako dituzte, bakoitzaren profil banarekin.

URTEURREN JAIA

Al Andalus elkarteak 15. urteurrena ospatuko du datorren zapatuan. Eta Ermuko andaluziarren elkartea gonbidatu dute jaira. Eguerdian elkartuko dira ohorezko ardoa edateko; bazkalostean, eta iluntzera arte, elkarte biek saioak eskainiko dituzte. Ermuko gitarra taldea, koro rozieroa, talde runberoa eta dantza taldea arituko dira, Al Andalus elkarteko dantza eta kantu taldeekin batera. Jaialdiak 20:00-20:30ak arte iraungo du eta 22:00etan hasiko da Flamenko jaialdiaren 3. kanporaketa.

Horrez gain, Euskal Herriko andaluziar etxeen Farae elkarteak batzarra egingo du, Al Andalusen. Zapatukoa, beraz, ekitaldiz beteriko eguna izango dute.

ARTXIBOA

Al Andalus elkartearen 15. urteurrena ospatuko dute zapatuan.

GARI I **'0-TIK' DISKOA AURKEZTU ZUEN ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN**

Dotore ibili zen Gari Espaloiko eszena gainean

'0-tik' bere bakarkako hirugarren lana aurkeztu zuen egubakoitzean Elgetako kafe antzokian

Luzia Mendigain

Gari ikusi nuen sekula baino kantautoreago. Eszena dominatzen zuen eta hura zen taula gaineko artista. Hasierak, akaberak, noiz jo gitarra jotzailea, noiz eman intentsitatea amaierei, noiz egin ahots hutseko kanta bat... Eszena gainean dotore ibili zen Gari. Beharbada hasiera du makalagoa eta ez dio laguntzen kantutik kantura komentariorik ez egiteak. Komunikazioa haratago eramateko modua da kantuen azalpen, edo gutxienezko aurkezpen bat. Horri gehitzen badiogu pare bat bider afinatu behar izan zuela gitarra...

AMAIERA BEROA

Hala ere, handi ikusi genuen Gari. Kontzertuak aurrera egin ahala handiago eta indartsuago. Emandako bost kantuko bisak ez zuen dudarik utzi inorengan. Gari gogoz zegoen eta daukana erakustera etorri zen. Badu kantatzeko modu berezia, Euskal Herriko *frotmana* da, eta askotariko baliabideekin erakutsi zuen hori: gitarra eta ahotsa, pianoa eta ahotsa, eta, akaso, aspaldiko Gariren antz handien hartuz taldekideak eta bere ahotsarekin bakarrik. Mikroa eta mikro-hanka eskuan dituela mugitzen daki Garik eta eragin egiten du muturrera kantuan egongo balitz bezala.

Abesti onak, bereziki lehen bi diskoetakoak. *Eguzki berritan zaude* eta *Espektakulua* kantekin gora egin zuen.

Musikariak oso fin. Profesionalak eta egiten dutena sinesten duten horietakoak. Trabarik bat ere ez.

Aitormena-ren bertsioa ere entzun genuen, oso aldatua eta jo beharra zegoelako kantatua zirudiena; hala ere, emanaldia borobila, taldea gustura jotzen, Aitor Ariño soinu teknikariak izugarrizko soinua atera zuen mahaitik eta aretoko jendea gustura ikusitakoarekin.

Gari etorri da gogoz, astiro kontzertu hasieran, baina amorruz eta sendo amaierarako.

Ez zuen hutsik egin. Hunkitzen duen kontzertu horietakoa kanta batzuetan, biziagoa beste batzuetan, kontzertu landua, erroreetarako lekurik ez eta denen gainetik kontzertu gustagarria, heldua eta emankorra. Hori da Garik dakarrena *0-tik* hasi denetik.

Fitxa teknikoa

- **TALDEA**
Gari (ahotsa eta gitarra), Hasier Oleaga (bateria jotzailea), Josu Izagirre (baxu jotzailea), Kepa Martinez de Albeniz (teklatua) eta Juanma Gereñu (gitarra jotzailea).
- **JENDE KOPURUA**
200 lagun inguru batu ziren emanaldian.
- **IRAUPENA**
Ordu eta erdi pasatxo
- **TEKNIKARIAK**
Soinua: Aitor Ariño.
Argia: Gorka Arizmendiarrieta.

AITOR LIZARRALDE

Mikroa eta mikro-hanka eskuan dituela mugitzen daki Garik.

Fantasiazko pirata istorioek bete zuten domekan Bergarako Jam aretoa

Larraitz Zeberio

Bergarako Jam aretoan fantasiazko abenturak izan ziren protagonista domeka iluntzean.

Markeliñe antzerki taldeak *Igandeetan piratek jai* izeneko antzezlana taularatu zuen arratsaldeko seietan, 50 bat haurren aurrean.

Bertaratutakoek neskatxa baten fantasiazko istorioak ikusi zituzten. Altxorra balitz bezala ezkutatu du amamaren lepokoa, eta kosta ahala kosta inori ez ematea erabaki du. Lucia eta Francisco pirata italiarrak, ordea, altxorraren bila etorri dira. Itsasoa, zoologikoa, uharte ezezagunak... Bidaia handiak egingo ditu neskatoak bere irudimenaren fruitua diren bi piratekin.

Markeliñe antzerki taldearen lana xumea da *atrezzo* aldetik, baina burutsua oso hainbat leku eta egoera irudikatzerakoan antzezleek asmatutako irtenbideak ikusita.



AITOR LIZARRALDE

Neskatoak erraz sartu zien ziria Lucia eta Francisco pirata mozoloei .

Hutsik gelditu da aurten Arrasateko Jokin Zaitegi saria. Eztabaida luzeen ondoren, erabaki hori hartu dute epaimahaia osatu duten Urtzi Urrutikoetxea, Maria Colera eta Edorta Mataukok. 2004ko Literaturako Nobel saridun Elfriede Jelinen *Die Liebhaberinnen* eleberria itzultzeko 3.200 euroko beka zegoen jokoan, AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak Kutxako gizarte ekintzaren laguntzaz antolaturiko sariketan. Hamalau proiektu aurkeztu dira aurten, bat Antzuolatik.

KEPA LIZARRALDE | AED-KO KULTURA TEKNIKARIA

"Laginen kalitatea ez da txarra izan, baina liburu oso bat itzultzeko mailarik ez da ikusi"

Larraitz Zeberio

Zer gertatu da aurten? Ez al da ganorazko itzulpenik aurkeztu?

Aurten 14 proiektu iritsi zaizkigu. Elfriede Jelinen *Die Liebhaberinnen* eleberriaren lehen lauzpabost orrialdeak itzultzeko eskatu genien beka hautagaiei, guk sariduna izendatzeko.

Kalitatea ez da txarra izan, baina liburu oso bat itzultzea oso ardura handia da. Itzulpenik onena aukeratzearekin nahikoa izango balitz ez legoke arazorik, baina kontua ez da hor bukatzen. Gure kasuan liburu osoaren itzulpena dugu helburu eta epaimahaiaren esanetan ez da itzulpen fin bat egiteko maila erakutsi duen laginik ikusi.

Nortzuek osatu dute epaimahaia?

Elkar-en eta AEDren artean aukeratzen ditugu epaimahaikideak. Hiru izaten dira beti eta itzuli beharreko testuaren jatorrizko hizkuntzaren arabera aukeratzen ditugu.

Aurten, aukeratuetako bat Urtzi Urrutikoetxea izan da. Duela bi urteko beka irabazlea, hain zuzen ere. Imre Ketesz idazlearen *Sorstalansag* eleberri itzultzea egokitu zitzaion. Alemanezko testu bat euskaratzeko beka lortu zuen eta pentsatu genuen pertsona aproposa zela epaimahai lanetarako aurten.

Beste bi epaimahaikideak Edorta Matauko eta Maria Colera izan dira, sariketan babesle ditugun Elkar argitaletxeak eta Kutxa gizarte ekintzak aukeratutakoak dira.

Hamalau lagin jaso dituzue. Kopuru ona al da hori Jokin Zaitegi sariketan?

Iaz itzuli beharreko lana ingelesez idatzitakoa zen eta hemezortzi proiektu jaso genituen. Aurreko urtean, 2003an, hamabost lagin iritsi zitzaizkigun eta Urtzi Urrutikoetxeak eraman zuen beka.

Nik uste dut kopuru polita dela, eta urtetik urtera mantendu egin da, gainera. Gure ustez, behintzat, seinale ona da hori. Ziur egunen batean Nobel saria gazteleraz idazten duen idazle batek jasotzen badu pertsona gehiago aurkeztuko dela gure beka deialdira. Kontu horretan jatorrizko hizkuntzak eragin handia duela uste dut.

> "Lehiaketak jauzi garrantzitsua eman du eta Euskal Herri osoko itzultzaileak erakartzen ditu azken urteotan"

> "Abendu hasiera ezkero salgai aurkituko duzue Aramaioko Oscar Aranak itzulitako lana, 'Lotsaizuna'"

Beti aurkezten da bailarako baten bat? Itzultzaileak ere badira, beraz, Debagoienean?

Bai. Oscar Arana, iazko irabazlea, Aramaiokoa da eta gainera AEDko bazkidea. Oso sorpresa atsegina izan zen guretzat beka hark jaso izana. Aurten, Antzuolatik ere jaso dugu lagin bat. Aurrerantzean ere bide beretik jarraitzea espero dugu.

Hizkuntza oso ezberdinetako Nobel sariak izendatzen dira? Arazorik izan duzue alde horretatik?

Duela bi urte jatorrizko testua hungarieraz idatzitakoa zen. Ez genekien inor aurkeztuko ote zen gure lehiaketara. Gero, jakin genuen idazle horren liburu batek bazeukala alemanez egindako itzulpen bat eta idazleak berak gainbegiratutako lana zela, gainera. Fidagarria, beraz, Nobel saridunak berak itzulpena onartua bazuen. Urte hartan, Urtzi Urrutikoetxeak jaso zuen beka, baita itzulpena egin ere.

Ikusi du argia iazko saridunaren itzulpenak?

Bai, abendu hasiera ezkero dago salgai *Lotsaizuna,* Oscar Aranak J.M. Coetzeeren eleberriari egindako itzulpena. Datorren urtean ez da argitalpenik egingo, beka hutsik gelditu da eta. Udazkenean ezagutuko dugu Literaturako Nobel saridun berriaren izena. Orduan, eleberri bat aukeratuko dugu eta eleberri horren lehen orrialdeak itzultzeko eskatuko diegu interesatu guztiei. Prozesu guztia martxan jarriko da berriz ere.



LARRAITZ ZEBERIO

Kepa Lizarralde, Arrasateko AED euskara taldearen kultura teknikaria.

Pozik zaudete Jokin Zaitegi sariketak lortu duen mailarekin?

Jauzi garrantzitsu bat eman dugu eta lehiaketak Euskal Herri osoko itzultzaileak erakartzen ditu. Jokin Zaitegi arrasatear itzultzailearen izena jarri genion sariketari, eta duela bi urte hartutako erabakia ona izan delakoan gaude. Pozik gaude.

Egubakoitzean banatu zituzten literatura lehiaketako sariak Loramendi elkartean

Monika Belastegi

Pozik jaso zituzten irabazleek Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak antolatutako XVI. literatura lehiaketako sariak. Guztira 209 lan jaso zituzten Loramendikoek lau mailatan banatuta: Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloak. Sari banaketa egubakoitzean egin zuten udaletxe zaharrean, eta LHko saridunek bonu trukagarriak jaso zituzten, eta DBHkoek, berriz, 180 eta 90 euro bitartean.

AITOR LIZARRALDE

Guztira 209 lan jaso zituzten Loramendikoek lehiaketarako.

Loramendiko XVI. Literatur Lehiaketako irabazleak

LH 2. ZIKLOA

- **IPUINAK**
  - **1. saria:** Garazi Berrizbeitia
  - **2. saria:** Amagoia Jimenez
  - **3. saria:** Ander Navarro
- **POESIA**
  - **1. saria:** Endika Uribarren

LH 3. ZIKLOA

- **IPUINAK**
  - **1. saria:** Leire Pascual
  - **2. saria:** Miren Ugarte
  - **3. saria:** Laura Sanchez
- **POESIA**
  - **1. saria:** Garikoitz Igartua
  - **2. saria:** Uxue Bengoetxea
  - **3. saria:** Jon Ander Alberdi

DBH 1. ZIKLOA

- **AMODIOZKO GUTUNAK**
